



Perry Anderson

***PALESTINAREN OKUPAZIOAZ
ETA KOLONIZAZIOAZ***

*Presaka Betleemerantz
Siongo etxea*



Perry Anderson

***PALESTINAREN OKUPAZIOAZ
ETA KOLONIZAZIOAZ***

*Presaka Betleemerantz
Siongo etxea*

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte, Iñigo Roque Eguzkitza



Jatorrizko izenburua (2001, 2015): *Scurrying Towards Bethlehem, The House of Zion*

Egilea: Perry Anderson

Jatorrizko lizentzia: CC BY-NC-ND 4.0

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte, Iñigo Roque Eguzkitza

Barruko argazkia: Efi Sharir / Dan Hadani collection / National Library of Israel / The Pritzker Family National Photography Collection / CC BY 4.0

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2024ko otsaila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argialetxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu hau itzulpen lan militanteari esker argitaratu da



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomentziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.


ISBN: 978-84-16946-94-5

Lege gordailua: NA 175-2024

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

MAPAK	11
ARGIALETXEAREN OHARRA	15
BAT	
Presaka Betlemerantz	17
BI	
Siongo etxea	57







1920-1948









ARGITALETXEAREN OHARRA KOLONIALISMO ZAHARRAREN GENOZIDIO BERRIAK

2022ko udazkenean Lidia Txukovskaia eta Lidia Zhukovaren *Hurrek hitza* (Josu Zabaletak itzulia) argitaratu genuenean gertatu bezala, orain esku artean duzun liburu hau ere sarraski berri batek ekarri du tamalez, ez zegoen gure argitalpen-planean. Baina, 2023ko urriaren 7an, Gazako Hamas erakundearen beso armatua –Jihad Islamikoarekin, Palestina Askatzeko Herri Frontearekin eta Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoarekin batera– Israelek setiatutako mugetatik kanpora atera zen, eta 1.139 lagun hil zituen (695 zibil) eraso zabal batean. Israelgo estatu kolonialak, erantzun gisa, Gaza suntsitu zuen etxex etxe; 80 egunean, 22.500 lagun hil zituzten –ia erdiak haurrak–, ospitaleei eraso zieten eta ia ezinezko bilakatu zuten atzerriko laguntza humanitarioa iristea.

Hori guztia Amaia Astobizak eta Iñigo Roquek liburu hau itzuli bitartean gertatu da, eta ez dakigu inprimategian egingo dituen egunetan eta datozen hilabeteetan palestinarren kontrako kolonizazioa eta genozidioa noraino iritsiko den. Badakigu, halere, zer

kontu ulertu behar ditugun irudi lazgarrien aurrean zurtuta geratzen garenean: sionismoaren historia, Israelen historia, inguruko estatu arabiarrek auzi honetan izan duten jarrera, Mendebaldeko estatuak izan dutena. Oraingo gertaera hauen jatorria azaltzeko ekarri ditugu euskarara *New Left Review* aldizkariak 2001ean eta 2015ean (10. eta 96. zenbakietan) argitaratutako bi testu hauek.

Iruñea

2024ko urtarrila

BAT

PRESAKA BETLEMERANTZ¹

Bederatzi hilabete igaro dira historia garai-kideko okupazio militar ofizial luzeenaren aurkako bigarren Intifada hasi zenetik, oraintxe sartuko gara okupazioaren hogeita hamabosgarren urtean. Jakina, Palestinaren inguruko gatazka askoz lehenagotik dator. Arabiar eta juduen arteko lehen liskarrak joan den mendeko hogeiko hamarkadan gertatu ziren. 1948tik, Israel bost gerratan borrokatu da, eta, gerra horien ondorioz, bi gerra zibil piztu dira mugakide dituen bi estatutan. Ekialde Hurbilean zer gatazka diren

1 Jatorrizkoan, «Scurrying Towards Bethlehem». Izenburuan, autoreak bi erreferentzia uztartzen ditu. Batetik, *scurry* terminoa (arabieraz, *al-Muharwaluum*) Nizar Qabban poeta siriarrak erabili zuen lehen aldiz testuinguru honetan, Rabinek eta Arafatek Etxe Zuriaren aurreko belardian bostekoa eman ondoren idatzitako poema batean; gerotzik, esapide hori oso ezaguna bilakatu da mundu arabiarrean. Bestalde, «towards Bethlehem» esamoldearen jatorria aurkitzeko, William Butler Yeats-en *Bigarren etorrera* poemara jo behar da. Honela dio bigarren bertsoko azken lerroetan: «Eta zer piztia gaizto, bere azkeneko orduan, doa arrastaka Belenen jaiotzera?» (Itz.: Juan Kruz Igerabide, MPK, Susa, 2022). Esamolde hori oso ezaguna bilakatu da, eta, nolabait, aldaketa baten etorrera motela adierazteko erabiltzen da. Beraz, artikulua egileak hitz-joko bat egiten du bi poema horien elementuekin, bateko moteltasuna besteko presarekin ordezkatzuz. [Itzultzailearen oharra]

gorabehera, gaur egun gaiari buruz iritzi desberdin gutxi dago Mendebalean. Horretaz den bezainbatean, ziurta daiteke nazioarteko ezein arazo larriren aurrean ez dagoela Palestinaren auzian erakusten den gisako adostasun eta zurikeriarik. Palestinan, ustez, iritzi errespetagarri guztiek aho batez txalotu duten «bake-prozesu» bat garatu da hamarkada batez, eta prozesu hori indarkeriaren erabilerak soilik jar dezake arriskuan. Alderdi guztiei interesatzen zaie, hala dio zuhurtzia ofizialak, Zisjordaniako eta Gazako altxamenduari berehala azkena ematea. Israeldarren eta palestinarren arteko harremana —eta horren ondorio da aurreko ideia hori— inguratzen duen itsumen gotorra zulatzeke, artikulu honetan egin dezakegun edozein analisi laburretatik harago joan behar genuke. Halere, oinarrizko gogoeta gutxi batzuk egin daitezke.

1

Juduen eta palestinarren arteko gatazka bi nazionalismoren arteko norgehiagoka da, azken mendean izan diren ugari horietako bat. Berezitasun bat du, ordea: bi aurkakoen arteko asimetria. Kontzientzia nazional palestinarra berandu gorpuztu zen, identitate arabiar zabalago batetik abiatuta, 1948an juduek palestinarrak armen bidez zapaldu zituztenean komunitate horrek pairatu zuen hondamendiaren —Nakbaren— ondoren. Aldiz, nazionalismo juduak, beraren homologo palestinarraren sorrarazlea bera, egitura antolatua zuen XIX. mendearen amaierarako. Herzl-ek sortu zuen mugimendu sionista XIX. mendeko Erdialdeko eta Ekialdeko Europako nazionalismo etnikoen nahasketa bat zen, hortik jaso baitzituen jarraitzaile gehienak. Alde horretatik, Lehen Mundu Gerraren aurretik eta ondoren eskualde horretan

gertaturiko herri zatikatu edo zapalduen ernatzearen adibide tipikotzat jo daiteke. Nolanahi ere, juduen egoerak bi bereizgarri zituen. Batetik, ez ziren bizi lurralde berean (eta ez zuten hitz egiten hizkuntza bera); kontinentean zehar eta multzoka banatuta zeuden. Bestalde, antzina-antzinako erlijio bat zuten, eta, identitateari dagokionez, erlijio horrek bestelako oinarri bat eskaintzen zien —epe ertain edo motzera—, Europaz kanpoko sorteri sakratu bati lotua. Israelgo lurretan estatu judu bat ezartzea helburutzat harturik, sionismoak energia teologiko eta kulturalaren erreserbak mobiliza zitzakeen, eta erreserba horiek aise berdindu zezaketen lurrak edo hizkuntzak eskaini ohi duten oinarriaren gabezia.

Alabaina, nazio-estatu bat haren kideen kokalekutik milaka kilometrora eratzea, luzaz beste batzuen bizileku izandako lurralde batean, beste erlijio bat ordezkatzeko zuen estatu erraldoi baten agindupean... Oztopo horiek gaindiezinak izango ziren, baldin eta beste faktore gehigarri bat tartean izan ez balitz, zeinak sionismoa orduko beste mugimendu nazionalista bat baino zerbait gehiago bilakatuko baitzuen. Soziologikoki, Europako juduak oso polarizatuta zeuden. Ekialdeko Europan —oroz gain, Polonian eta Errusian—, gehientsuenak pobreak eta baztertuak ziren, eta antisemitismo kristauaren etsaitasunezko aurreiritzi orok eragindako umiliazio eta arriskuei aurre egin behar izaten zieten; alde horretatik, eskualdeko beste nazionalitate zapalduenak baino are egoera okerragoan zeuden. Bestetik, Mendebaldeko Europan, klase ertain aberatseko kide ugariz gain —*Besitz* eta *Bildungsbürgertum*, burgesia jabetzaduna eta burgesia ilustratua—, kontinenteko ondasunik oparoetako bartzuk ere bazituzten. Europaren mutur batean Chagall

edo Martov-en *shtetl* (herrixka judua) zegoen; bestean, Rothschild eta Warburg familien *haute financeak*, edo Disraeli-ren karrera politikoa. Antisemitismoaren itzalak judu guztiak estaltzen zituen, haiek erdietsitako aberastasun edo boterea edozein zela ere, eta bizitzako goiko eta beheko kategoriak lotzen zituen, Dreyffus aferak —sionismoa ernarazi zuen gertakariak— argi utzi bezala. Nolanahi ere, Belle Époque garaian, europar juduen gainak eta loreak Europa inperialaren zirkulu boteretsuetan *entrée* bat egiteko egokiera izan zuen, eta aukera horrek erruz gaintzen zituen garai hartako beste ezein nazionalitate zapalduren ametsak. Jardunbide bikoitz paradoxiko hori gabe, nola goitik hala behetik, sionismoak ezingo zituen bere helburuak bete.

2

Lehen Mundu Gerrak behin betiko bultzada eman zion mugimenduari 1917ko Balfour Adierazpenarekin, zeinaren bidez Erresuma Batuak babes eman baitzion Palestinan juduen aberria eratzeari. Babes horrek orpoz orpo jarraitu zien Frantziaren aurretiko agintzei. Londresek sionismoa babesteko erabakia inperioen arteko kalkuluen emaitza izan zen argi eta garbi. Lehendabiziko xedea zen Errusian eta Estatu Batuetan juduen aldektasuna irabaztea aliatuen gerra-ahaleginerako kinka zail batean —Otsaileko Iraultzaren ondoren eta AEB gatazkan sartu aurretik—, eta, era berean, marra gorri bat ezartzea Frantziak Palestinarako zituen planei. Haatik, horren atzean kultura protestantearen barruko aspaldiko jite ideologiko bat ere bazen, Pentautekoarekiko atxikimendu sakona, juduak Lur Santura itzultzea aldeztzen zuena.² Sionis-

2 Juduek Israelgo lurraldea berreskuratzea defendatzen edo iragartzen

mo kristauaren ildo hori, zeinaren leinu burgoia XVII. menderaino iristen baitzen, funtsezkoa izan zen Britainiar Inperioko eliteak Palestinan kokagune juduak hedatzearen aurrean altxatutako hesia gaintzeko, behin Britainia Handiak eskualdearen kontrola ziurtatu ondoren Versailles-en. 1918an, 700.000 arabiar inguru eta 60.000 bat judu bizi ziren Palestinan. Handik hogeitaz urtera, 1.070.000 arabiar eta 460.000 judu bizi ziren.

Halandaze, sionismoak bere izaera bikoitz bitxia hartu zuen. Nazionalismo etniko europarraren aldeko mugimendu bat, Europaren atzerriko kolonialismoaren moldekoa, ezinbestean. Sionismoak gerra aurreko Palestinan sortutako kokagune-kolonia *sui generis* zen. Ipar Amerikako edo Australiako kolonoak ez bezala, Yishuv-ek ez zeuzkan aurrez aurre ehiztari-biltzaile sakabanatuak, baizik eta nekazari-populazio trinko bat, eta hori ezin zen bultzaka baztertu edo suntsitu. Aljeriako kolono frantsesak ez bezala, edo Hegoafrikako garai bateko kolono nederlandarrak ez bezala, ezin zituen tokiko beharginak masiboki esplotatu, *piéd-noir* kolonoz osatutako gizarte bat eratzeko arriskua baitzegoen, non sionismoa gutxiengo bilakatuko baitzen. Etsaitasunezko ingurune batean nazio-estatu etnikoki homogeneo bat eraikitzeko, ezinbestekoa zen sinesmen ideologiko baten bidez elkartutako komunitate

zutenen artean, baziren Milton, Locke, Newton, Priestley, Fichte eta Browning, baita George Eliot ezaguna ere. Politikarien artean, hauek aipa daitezke: Shaftesbury, Palmerston, Milner eta Lloyd George. Ilustrazioaren tradizioaren barruan, hor dugu Napoleonek juduei egindako deia beren ondarea berreskura zezaten, 1799ko Siriako kanpainan. Ikus gai ahaztu horri buruz Regina Sharif-ek arretaz egindako lana: *Non-Jewish Zionism*, Londres 1983, *passim*. Elite politiko eta burokratikoaren artean, sionismo kristaua nahiko bateragarria zen batzuetan antisemitismoarekin, tokiko juduak Lur Santura bidaltzeko proiektua zuelako. Horri buruz, ikus Tom Segev, *One Palestine, Complete: Jews and Arabs under the British Mandate*, New York 1999, 33-36 et seq.

separatista bat, klase-arrakalarik batere gabea. Hau da, kibutzak: teorian inspirazio sozialistakoak, praktikan horiek ziren tokiko beharginik gabeko, lugorritz jositako eta arrisku-kapital nabarmeneko kolonizazioaren arazoari aurre egiteko irtenbide bakarra.³ Apartheida mistifikazio bat zen Hegoafrikan, non sekula ez baitzen izan arrazen «garapen bereizi»rik, eta termino hori zuriak beltzak esplotatzeko molderik muturrekoenak adierazteko eufemismo bat besterik ez zen; baina halako zer bait zen gerrarteko sionismoaren behin-behineko helburua.

Palestinako judu-barrendegiak bazuen beste bereizgarri bat. Hasiara-hasieratik, kolonoen gizarte aberrigabe bat izan zen, metropoli batetik abiatu ez zen kolonia bat. Aitzitik, berari boterea lagatzen zion inperialismo bat zuen atzean. Juduen kolonizazioak guztiz ezinbestekoa zuen Britainia Handiaren botere koloniala. Polizia eta armada britainiarraren indar gotorrik gabe, gehiengo arabiarrek —biztanleen % 90— berandu gabe geraraziko zuen aitzinamendu sionista Lehen Mundu Gerraren ondoren. Sendotzen jarraitu ahal izateko, sionismoa estatu inperial britainiarraren indarkeriaren guztiz mendekoa zen. Azkenean ere, arabiarrek juduen barneratzearen zenbaterainoakoak jabetu zirenean, berebiziko iraultza bat piztu zen, 1936ko apiriletik 1939ko maiatzera arte iraun zuena. Historikoki, hura izan zen Intifadetan lehena eta luzeena. Londresek 25.000 soldadu eta aire-eskuadroiak bidali zituen matxinada zapaltzera: gerrarteko aldi

3 Hori da Gershom Shafir-en funtsezko lanaren ondorioa (*Land, Labor and the Origins of the Israeli-Palestinian Conflict, 1882-1914*). Lan horrek Lehen Mundu Gerraren aurreko garaiko «juduen enplegu eskusiboak» logikaren mailakako sorreraren arrastoari segitzen dio. Geroagoko urteen analisiaren berri izateko, ikus 'Zionism and Colonialism—a Comparative Approach', in Ilan Pappé (ed.), *The Israel/Palestine Question*, Londres 1999, 81-96.

osoan, hura izan zen Britainiar Inperioaren gerra kolonialik handiena. Yishuvek babestu eta bultzatu zuen kontrainsurgentzia-kanpaina, eta juduek Wingate-ren heriotza-eskuadroi gehienak jarri zituzten. Bigarren Mundu Gerra hasi zenerako, britainiar inperialismoak Palestinako gizarte politikoaren muina txikitua zuen, eta, hartara, bide eman zion gerraosteko garaipen sionistari.

3

Britainiar Inperioaren abaroan egon arren, kolono juduek inoiz ez zuten harekin erabat bat egin. Kolonialismoaren historian behin eta berriro errepikatu izan dira atzerriko kolonoen eta metropoliaren arteko tirabirak, nola Bostongo Tearen Matxinada eta Buenos Airesko *kabildoa*, hala Ian Smith eta Aljeriako OAS.⁴ Gainerako kasuetan ez bezala, Yishuvek Whitehall-ekin zuen harremanean ez zen ahaidetasunezko edo kulturazko kidetasun sentimental bat. Londresen *broker* izandako batzuen anglofilia gorabehera, hala nola Weizmann-ena, kolono-komunitatearen buruzagi zailduentzat britainiar kolonialismoaren eta nazionalismo juduaren arteko akordioa baliabide praktikoa baina ez zen.⁵ Tentsioa berehala areagotu zen, Londres juduen immigrazioa gutxitzen saiatu zenean, arabiarren atsekabea apaldu nahian, naziek Alemanian juduei gero eta gehiago jazartzen zieten bitartean. Nolanahi ere, Bigarren Mundu Gerrak aukera eman zion sionismoaren ildo laborista nagusiaren adar ar-

4 Aspaldi esan zuen hori Maxime Rodinson-ek: *Israel: A Colonial-Settler State?*, New York 1973, 64-65.

5 Weizmannek ingelesei buruz zuen ezagutzaren inguruko zenbait ohar zorrotzerako, ikus David Vital, *Zionism: the Crucial Phase*, Oxford 1987, 163. Jabotinsky, autore honen ustean, ez zen hain sentimental, eta azkarragoa zen.

matuari Britainia Handiaren agindupean trebakuntza eta ekipamendu militarra eskuratzeko, eta ziurtatzeko borroka amaitu ondoren Palestinako estatu judu independenteak Churchill-en babesa izango zuela.⁶ Alabaina, Begin sionistak gidatutako Irgun erradikala, askoz talde txikiagoa bera, ez zen geratu bakearen esperoan, eta Britainia Handiaren aurka matxinatu zen 1944an. Horrek Ben-Gurionen haserre bizia piztu zuen, eta haren indar armatuek britainiarrekin elkarlanean jardun zuten Irguneko kideak harrapatzeko. 1945. urtearen osteko immigrazio-kontrol etengabeen ondorioz —jada ezaguna zenean Europako juduak nazien eskuetatik jasotzen ari ziren patu izugarria—, Haganah-k Irgunen estrategiarekin bat egin behar izan zuen. Urtebetez, Britainia Handiak kolonoen egiazko iraultza bati aurre egin behar izan zion, eta, nahiz eta sionismo laboristak 1946ko abuztuan borroka bertan behera utzi, britainiarren neurri gogorrek kikilduta, Irgunek eta LHIk ez zuten sekula amore eman. 1947ko udaberrian, Britainia Handiak Nazio Batuen esku utzi zuen bere aginpidea.

4

Garai hartan, orain bezala, Nazio Batuen Erakundea eta Estatu Batuak gauza bera ziren. 1947an, Estatu

6 Churchillen sionismo aspaldikoak arraza zuen oinarri, ez erlijioa. 1937an, darwinismo sozialarekin bat zetorren iritzia agertu zuen argiro Peel Batzordearen aurrean, eta arabiar palestinarrek animalia-munduko egoismo bekaiztiaren enblema ezagunarekin alderatu zituen: «Nik ez dut uste aska bateko txakurrak aska horrekiko azken eskubidea duenik, nahiz eta beharbada luzaroan egon den han etzanda. Ez dut eskubide hori onartzen. Ez dut onartzen, adibidez, bidegabekeria izugarria egin denik Ameriketako indio larrugorriekin edo Australiako beltzekin. Ez dut onartzen bidegabekeria bat egin denik jende horiekin arraza gogorrago bat, arraza gorago bat, arraza eskarmentu handiagoko bat, nolabait esateko, etorri delako eta haien lekua hartu duelako». Ikus Martin Gilbert, *Winston S. Churchill*, 5, lib. os., 3. zat., Boston 1983, 616.

Batuak New Yorke Nazio Batuen gain zeukan kontrola, gaur egungoa bezain zabala ez bazen ere, aski zen Palestinari buruzko eztabaidetan azken hitza izateko. Washingtonen, Truman uste osoko sionista kristaua zen. Sionistek ezkutuko mikrofonoak jarri zituzten Ikerketa Batzorde batean; batzordeburua suediar epaile bat zen, eta Ralph Bunche zuen aldamenean; bada, batzorde hark jakinarazi zuen Palestina bitan banatu behar zela. Juduek, biztanleen % 35 izanik, lurren % 55 eskuratu behar zuten; arabiarrek, biztanleen % 65 izanik, lurren % 45. Proposatutako estatu juduaren barruan, juduak adina arabiar izango ziren ia; estatu arabiarren barruan, ez zen ia judurik izango. Ehuneko horiek justifikatzen ziren argudiatuz espero izatekoa zela denborak aurrera egin ahala juduen Israelerako immigrazioak gehiengo erabakigarri bat ekarriko zuela haiei esleitutako lurraldean. Ezbairik gabe Irgunen kanpaina antiinperialistaren eraginez, SESBek, inoren laguntzarik gabe ere plan hura gerarazteko gai zena, egitasmoa onetsi zuen: horixe izan zen Beginek Britainia Handiaren aurka egindako eraso bortitzek sionismoari egin zioten funtsezko zerbitzua. NBEko nazio txikiak egitasmoaren aurka zeuden, baina aurkakotasun hori baino askoz indartsuagoak ziren Estatu Batuen eroskeria eta xantaiak, eta egitasmoak aurrera egiteko beharrezkoa zen botoen bi herenak ziurtatu zituzten Batzorde Nagusian.⁷ Trumanek, emaitzaren

7 Beste xehetasun atsegin batzuen artean, Liberiari —jatorriz, AEBren ekimenez eratutako beste kolono-estatu bat— jakinarazi zioten galzoria eramango zuen blokeo bat ezarriko ziotela gomaren merkatuan baldin eta ausartzen bazen NBEren planaren aurka botoa ematera. Auzitegi Goreneko epaile Murphy eta Frankfurter-ek —ez edozeinek, beraz— arrastoan sartu zituzten Filipinak. Bernard Baruch egotzi egin zuten, Frantziari mehatxu egin ziolako: banaketaren aurka bozkatzeko bazuen, AEBren laguntza guztiak galduko zituen. Kubako enbaxadoreak esan zuen Latinoamerikako herrialde bati —ziurrenik Kubari berari, Truman-

arkitektoa bera, Ziro modernotzat izendatu zuen bere burua, eskubide osoz izendatu ere.

Nazio Batuen ebazpenari buruzko albisteeek bat-bateko altxamendu bat eragin zuten Palestinan. Yishuvek sei hilabetez zapaldu zuten matxinada hura, armada britainiarrek setioari eusten zion bitartean, ezein armada arabiarrek esku har ez zezan. Alde egin aurretik, Israelgo Estatua aldarrikatu zuten, eta armada arabiarren aurkako azken eraso bat jo. Israelgo Armadak arabiarrenekin baino askoz soldadu eta arma gehiago zituen, eta 1949. urtearen hasierarako guztiak suntsituak zituzten, bat izan ezik, eta harek ekarri zuen juduen garaipena. Lurraldearen banatzeko benetako egitasmoak aurrea hartu zion alegiazko planari. Izan ere, Nazio Batuek ebazpena jakinarazi baino hamabi egun lehenago, buruzagi sionistek isilpeko itun bat egin zuten Jordaniako monarkia haxemiarekin, eta haren esku utzi zuten Zisjordania, eskualdeko gainetarako lurretan dena libre uztearen truke, bi aldeak bat baitzetozen palestinar estatu baten sorrera eragozteko xedean.⁸ Jordania Britainia Handiaren estatu satelite bat zen, eta azken horrek baiezkota eman zion akordioari. Gerra piztu zenean, Abdullah erregeak bere harrapakina eskuratu zuen unerik egokienean, eta

ek lehenagoko presioa ezarri baitzuen haren gainean egun batzuk lehenago ('Kubak oraindik ez du parte hartuko')— 75.000 \$ ordaindu zituztela botoaren truke. Ikus Michael Cohen, *Palestine and the Great Powers 1945–1948*, Princeton 1982, 294-299. Cohenek dio genozidioak eragindako errukia ez zela nahikoa izan Nazio Batuen ebazpena onartzeko: «Faktore arruntagoei esker lortu ziren boto gehigarriak azken orduan».

- 8 Ikus Avi Shlaim-en kontakizuna lan honetan: *Collusion Across the Jordan: King Abdullah, the Zionist Movement and the Partition of Palestine*, New York 1988, 110-116. Abdullah eskudirutan kobratu zuen bere azpikeria, Agentzia Juduaren mandatarari bati honako hau adierazi ondoren: «Mozkortu nahi duenak ez lituzke edalontziak zenbatu behar». Horrekin, zera esan nahi zuen, Shlaimen arabera: «Estatu bat nahi duenak beharrezko inbertsioak egin behar ditu»: op. cit., 78-82.

aliatuak haien artean konpon zitezen utzi zuen. Gerra amaitu zenean, Israel Nazio Batuek eskainitakoa baino askoz lurralde zabalagoaren jabe zen, eta Jordaniak Zisjordania anexionatu zuen.

5

1947ko azarotik 1949ko martxora bitarteko bi gerra-boladetan, baina batez ere lehenengoan, juduen erasoek Palestinatik kanporatu zituzten arabiar biztanleen erdiak baino gehiago, 700.000 lagun inguru. 1930eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, sionismoak, isilbidez, ziurtzat jo zuen arabiarrek indarrez atera beharko zituztela hautatutako lurraldetik, haien presentzia bateraezina baitzen helburu zuten estatu nazional homogeneoarekin, eta ordurako agerikoa zen ezinezkoa izango zela haiek diru-truke amore ematea. Estraofizialki, sionisten buruzagiak ez ziren itzulinguruka ibiltzen logika horri zegokionez.⁹ Aukera azaldu, eta harrapatu egin zuten. Tokiko arabiarren ihesaldiak

9 Asmo pribatuak eta adierazpen publikoak ez zetozen bat hasieratik. 1895erako, Herzlek honako hau idatzi zuen bere egunerokoa: «Saiatuko gara txakur txikirik gabeko herritarrak mugaren bestaldera eramaten, lana eskainiz iragaitzazko herrialdeetan eta enplegu oro ukatuz gurean... Bai pobreak desjabetzeko prozesua bai haien kanporaketa diskrezioz eta zuhurtziaz egin behar dira». 1938an, Ben-Gurionek esan zion Agentzia Juduaren Zuzendaritzari ez zuela ezer txarrik ikusten arabiarren «derrigorrezko transferentzia»-ren ideian, eta honela azaldu zuen: «Herrialdea banatzearen alde nago; izan ere, estatua fundatu eta botere indartsu bilakatzen garenean, banaketa abolitu eta Palestina osora zabalduko gara». 1944rako, bere kideei ohartarazten ari zitzaian politikoki okerra izango litzatekeela «transferentzia»-ri buruz jendaurrean berba egitea, zeren eta horrek «kalte egin liezaioke munduan gure irudi publikoari», eta irudiko luke «Palestina ez dagoela lekurik arabiarrek egotzi ezear», eta, beraz, «arabiarrek altzaraziko lituzke» protestan. Mapai alderdiko kide Eliahu Dobkin-ek zorrotz gehitu zuen: «Herrialdean gutxiengo [arabiar] handi bat egongo da, eta kanporatu egin beharko da. Gure lotsek ez dute tokirik [gai honetan]»: ikus Benny Morris, 'Revisiting the Palestinian exodus of 1948', in Rogan eta Shlaim (ed.), *The War for Palestine, Rewriting the History of 1948*, Cambridge 2001, 41-47.

alde izan zituzten, baina ihes haien eragile zen beldurra goi-agintari sionistek sustatutako gerran gertatzen ziren sarraskien eta kanporatzeen parekoa zen; hilketak, arpilatzea eta larderia ohiko tresnak ziren arabiar populazioan izua hedatzera bideratutako politikaren testuinguruan. Juduen independentziaren aldeko gerrak garbiketa etnikorako operazio ikaragarri bat eragin zuen, eta, geroztik, hori izan du oinarri Israelgo Estatuak. Kanporatzeak *Nacht und Nebel* erara —iluntasun militarren babesean— egin ziren, XX. mendean era horretako krimen gehienak egin ziren bezalatsu. Palestinarren patua maskaratu asmoz, garaileek eufemismo sorta berezi bat asmatu zuten. Garbiketa ez zegokien soilik pertsoneri. Lurrak eta jabetzak eskuratu zituzten, artean kolonialismoaren historian ezein kolonizaziok erdietsi gabeko abiaduran eta eskalan. 1947ko hasieran, juduak Palestinako lurren % 7ren jabe ziren. 1950. urtearen amaierarako, estatu berriko lurren % 92z jabetuak ziren, eta harrapakin horien artean baziren etxeak eta era guztietako eraikinak.¹⁰ Horrenbestez, 160.000 arabiar baino ez ziren geratu, guztiak ere Israel barruko iheslari gisa.

Ankerkeria-mailari dagokionez, ez dago Nakba eta Shoah alderatzerik. European naziek juduen aurka egindako sarraskia beste maila bateko izugarrikeria bat izan zen, eta bien arteko alde hori beti erabili izan da justifikatzeko, edo leuntzeko, Israelen sorreraren oinarri-oinarrian dagoen palestinarren kanporatzea. Gaur artean, *judeozidioaren* errezelak estaltzen ditu estatu sionistaren ekintzak, ez bakarrik israeldarren edo diasporako juduen aurrean, baizik eta baita Mendebalaren iritziaren aurrean ere. Alabaina, historikoki, bien

10 Baruch Kimmerling, *Zionism and Territory: the Socio-Territorial Dimension of Zionist Politics*, Berkeley 1983, 143.

arteko lotura eskasa edo hutsa izan zen. 1947rako, Haganahko eta Irguneko borrokalariek ondo baino hobeto zekiten zer gertatu zitzaien Europa nazian harrapatuta geratu ziren juduei. Baina judu guzti-guztiak bizirik atera balira ere, ez zuketena bestela jokatuko. Helburu sionistak Hitler boterera iritsi baino luzaz lehenago ezarri ziren, eta gertaera hark ez zituen aldarazi. Ben-Gurionek behin adierazi zuen Alemaniako haur juduen erdien bizitzak sakrifikatzeko prest zegoela, baldin eta hori balitz beste erdia Palestinara eramateko ordaindu beharreko prezioa, guztiak onik Ingalaterran geratu beharrean.¹¹ Horrek baino askoz garrantzi txikiagoa zuen arabiarren patuak, izan haur edo heldu. Ekialde Hurbilean nazio-estatu judu bat eraikitzeke helburuak soluzio bat baino ez zuen onartzen, alegia, Nakbaren bidez eta indarrez egin zena. Gertatuak gertatu ondoren, judeozidioa aitzakia edo aringarri gisa erabili izan da, baina egiaz ez zuen izan lotura zuzenik azken emaitzarekin. Atzerrian —Europar eta Estatu Batuetan—, sionisten independentzia-gerraren aldeko jarrera sustatu zuen, baina hori ez zen sekula izan arrakastarako faktore ezinbesteko bat.

Nazionalismo etniko guztiek —eta nazionalismo guztiak dira etnikoak hein batean— beste nazionalitate batzuen aurkako indarkeria potentzialaren haziak gordetzen dituzte barnean. Hazi horietatik fruitua ernarazten dutenak ez dira kultura-bereizgarriak, ezpada egoera historikoak. Nazionalismo judua lurraldegabetasunak eragindako etsipenaren eta pribilegio soziopolitikoaren arteko konbinazio baten ondorioz sortu zen. Mugimendu nazional gehienek bezala, ideal

11 Ikus Benny Morris, *Righteous Victims: A History of the Zionist-Arab Conflict 1881-1999*, Londres 1999, 62. Ben-Gurionek 1938an egin zuen adierazpen hori, *Kristallnachtetik* hilabetera.

gorenak eta ausardia deboziziozkoak mugiarazi zituen jarraitzaileen artean. Aitzitik, egoera egokiagoan zeuden beste batzuek erraz edo bakez erdiesten zituzten helburuak lortzeko, azpikeria kolonialak eta desjabetze bortitza erabili behar zituen. Horretarako, sionismoak soldadu errukigabeak behar zituen, eta sortu egin zituen halakoak. Nazionalismo garaikideen galerian, haien espedientea ankerkeriaren espektroaren mutur batean dago, beste askorenarekin batera. Ez dago arrazoirik haien garaipena goresteko, zeren hein handi batean botere inperialaren mendekoa izan baitzen, ez eta haien jokabidea edertzeko ere, zeren ondorioek gaur ere zornatzen jarraitzen baitute. Baina ez zuten ohiz kanpikorik egin beren xedea erdiesteko. Garbitzaile arruntak baino ez ziren izan.

6

Sionisten garaipenetik erne zen estatua ez zen hain ohikoa. Judizialki, Israel odolean eta sinesmenean oinarritutako errepublika bilakatu zen; beraz, irizpide konfesional eta biologikoak konbinatuz zehazten zen zein ziren eskubide osoko herritarrak, benetakoak edo potentzialak, hala nola ama judua zuten banakoak edo Moisesenganako sinesmen ziurtatua zutenak, haien jatorri geografikoa edozein zela ere. Itzulera Legeak Israelen bizitzeko eskubidea bermatzen zien baldintza teologiko-etniko horiek betetzen zituzten guztiei; ordea, iheslari palestinarrei erabat ixten zitzairen beren etxeetara itzultzeko bidea. Ondorengo berrogeita hamar urteetan, bost milioi immigrante judu baino gehiago iritsi ziren Israelera. Arabiarrak, berriz, geroz eta beheragoko estatusetara bultzatzen zituzten, eta ukatu egin zitzaizkien hainbat eskubide, hala nola juduen lur eta ondasunak erostea, soldadutza egitea edo

muga politikorik gabe antolatzea. Bitartean, estatu sionistak lurren % 90 zuen bere zaintzapean, zuzenean edo zeharka, eta aginteko alderdi laboristaren adar sindikalak enpresa-komplexu handi bat kontrolatzen zuen —bankuak, fabrikak, zerbitzuak—, zeinean lan-indarraren laurdenak lan egiten baitzuen. Ondorioz, gastu militarra munduko handiena zen, denbora luzez Nazio Produktu Gordinaren % 25-40 ingurukoa, eta horrek laster armategi nuklear bat eraikitzea ekarri zuen.

Ezbairik gabe, Israelgo juduen populazioa sei-koizteak eta hainbeste etorki desberdinetatik abiatuta hizkuntza-komunitate berri bat sortzeak gizarte-ingeniaritzarako gaitasun nabarmena erakusten zuen. 1948-1949ko porrotaren mendeku gisa, hainbat estatu arabiarrek beren komunitate juduei jazarri zieten edo haiek kanporatu zituzten, eta Israelek babes eta ongiatorri eskuzabala eskaini zien horiei; iheslari palestinarrek, ostera, patu nabarmenki bestelakoa izan zuten lurralde arabiarretan. SESB erori zenean, Israelek harrera ezin hobea egin zion beste etorkin-olde handi bati. Horiek guztiak goi-mailako lorpenak izan ziren. Ekonomikoki, ordea, egitura hori ez zen inoiz izan bere kasa bideragarria. Horretarako, ezinbestekoak izan ziren atzerritik zetozen dirulaguntzak. Independentziaren ondorengo hogeita hamar urteetan, estatu-zergak ez ziren inoiz iritsi gastu ofiziala estaltzera.¹² Agentzia Juduak eskubete diru ekartzen zuen diasporatik, eta Ekialdeko Alemaniak eurrez di-

12 Adibidez, 1980-1985 bitartean, guztizko gastu publikoa BPGren % 70 baino handiagoa izan zen urte guztietan. «Fiskalitateak bakarrik ezin dio aurre egin halako gastu handi bati, baina, AEBren laguntzari eta zorrik eragiten ez duten atzerriko beste iturri batzuei esker, ez da beharrezkoa hala izatea. Libanoko gerran, 1982an, atzerritik iritsitako baliabideei esker gobernuak BPGren % 71,5 erabili ahal izan zuen gastuetarako, eta % 56,6 soilik baliatu zen barne-finantzetarako»: Yakir Plessner, *The Political Economy of Israel*, Albany 1994, 177.

ruztatzen zuen estatua kalteen ordainetan, baina, horiekin bakarrik, Israelek ez zukeen sekula lortuko kaudimena izatea. Estatu Batuek ahalbidetu zuten gotorleku sionista. Itxura batean, ez da sekula zehazki kalkulatu zer balio metagarri duten Estatu Batuetatik egindako alde bakarreko kapital-transferentziek, asko eta asko xedapen teknikoen korapiloetan ezkututzen baitira. Halere, ez dago ia zalantzarik, Avi Shaim-ek azken hamarkadan idatzi bezala: «Gizateriaren historian, ez da inoiz gertatu hain jende gutxik hainbeste zor izatea horrenbesteri».¹³ Beste bi analista leialen hizkuntza teknikoagoa erabiliz, Israel *estatu errentista* izan da.¹⁴ Herrialdearen sendotzea eta hedatzea Washingtondik bidalitako arma- eta diru-kopuru neurrigabeen mende zegoen erabat. Hain justu ere, Britainia Handiak 1948an bazter utzitako lekuko inperiala Estatu Batuen eskuetara igaro zen. Orduz gero, sionismoa Estatu Batuen boterearekin eraikitako oskol batek babestu izan du, garai batean Britainia Handiaren boterearekin eraikitakoak bezala.

Nolanahi ere, bi herrialdeen arteko harremanaren sakontasuna eta sendotasuna bestelako kontua izan da. Alde batetik, Estatu Batuak Britainia Handia bere aldirik oparoenean baino milatan aberatsagoak

13 *The Iron Wall—Israel and the Arab World*, Londres 2000, 487. Shlaim ez da independentziaren ondorengo urteez ari, 1990eko hamarkadaz baizik.

14 Gershom Shafir eta Yoav Peled, 'Introduction: the Socioeconomic Liberalization of Israel', in Shafir eta Peled (ed.), *The New Israel—Peacemaking and Liberalization*, Boulder 2000, 6. «Azken urteotan, kanpotik etorritako funtsak —dirulaguntzak, dohaintzak eta alde bakarreko transferentziak— 6 mila milioi dolarrekoak izan dira urtero», *Economist Intelligence Country Report* (Israel, 2000) txostenaren arabera. Eskuzabaltasun *ex gratia* horretatik harago, honako hau dio: «Israalgo gobernuarentzat funtsezko aktibo bat izan da AEBrekin duen aliantza estua, horrek epe luzeko kreditu ofizialak eskuratzeko aukera eman baitie Israalgo gobernuai, eta orobat, berme ofizialen babespean, AEBren bonuen barne-merkatuan parte hartzeko aukera», op.cit., 37.

eta boteretsuagoak dira, zer esanik ez gerrarteko gain-beherako urteetan. Horrez gain, komunitate juduak, zeina bere-berezko ahaleginez herrialdeko immigrante talde guztietan arrakastatsuen bilakatu baita, Europako iraganeko ezein judu komunitatek inoiz amestu baino eragin handiagoa du estatuaren gainean. Ne-goizioetan, gobernuan eta komunikabideetan errotua, Estatu Batuetako sionismoak Israelen inguruko iritzi publikoaren eta politika ofizialaren kontrol irmoa eskuratu du, eta kontrol hori oso bakanetan ahuldu da. Alde horretatik, taxonomikoki, kolonoek azkenean metropoli-estatuaren —edo estatu barneko estatuaren— antzeko zerbait lortu dute, hasiera batean ez zeukatena. Bestalde, Israelek AEBren konfiantzazko ordezkotza gisa jokatu du eskualdeko operazio ugaritan. Ardatz horren indarra sendotuz joan da hamarkadaz hamarkada. 1990eko hamarkadan, hirukoiztu egin zen Estatu Batuetatik Israelera zihoazen dirulaguntzen emaria. Hona hemen harreman horren intimitatearen adibide ezin egokiagoa, Clinton-en agintaldiaren azken egintza kostu handikoa, hainbat zentzutan aproposa: ihesean zebilen delitugile belgikar bati presidentearen indultua eman zion, diru-ordain baten truke, Israelgo lehen ministro eta atzerri-ministro zenak pertsonalki eta premia eskatu ondoren, Jerusalemgo alkatearen eta Mossadeko buru ohiaren babesarekin.

7

Israelen sorrerak arabiar mundua inarrosi zuen, eta, astindu horrek bultzatuta, 1950eko hamarkadan nazionalismo berri eta sutsuago bat sortu zen Egipton, Sirian eta Iraken. Sionismo laboristak, noski, mehatxu potentzialtzat hartu zuen hori, eta 1956an konpontxo egin zuen Frantziarekin, zeina artean Aljeriako Gerran

nahasia baitzebilen eta suminduta baitzegoen Britainia Handiarekin Suezko kanalaren nazionalizazioa zela-eta, Egiptoren aurka hiru aldeko eraso egiteko. Eisenhower jakitun zen Nasser SESBen altzora bultzatzeak zuen arriskuaz, eta haserre zegoen, gainera, inork ez ziolako AEBri ezer kontsultatu; beraz, eraso gerarazi zuen. Israelek lezioa ikasi zuen. Hamaika urte geroago, orduko hartan AEBren bedeinkapena eskuraturik, Israelek Egiptoko aire-armada suntsitu zuen, Sinai eta Golango gainak bereganatu zituen, Ekialdeko Jerusalem anexionatu zuen eta Zisjordia eta Gaza okupatu zituen, sei eguneko bonbardaketa prebentibo baten bidez. 1973an, arabiarrek kontraerasoa jotzen saiatu ziren, baina AEBk ahalegin hura zapuztu zuen, itsasoz eta airez ahalegin betean aurre eginda: ehi-za-hegazkin bonbaketariak, tropa-garraiagailuak eta tankeak. Sei urte geroago, AEB eskaintako pizgarriei erantzunez, Egiptok bertan behera utzi zituen aliatuak eta Palestina, eta aparteko bake-itun bat sinatu zuen Sinai berreskuratzeko. Hegoa arriskutik libratu ondoren, Israelek iparrerantz jo zuen berriro, eta Libano inbaditu zuen 1982an, hango base palestinarren suntsitzeko eta segurtasun-gune bat ezartzeko.

1967an, Isaac Deutscher-ek adierazi zuen Israelek *sich totsiegen* erako ibilbideari ekin ziola, alegia, garaitzaren mozkorrak heriotzaraino eramanez. ¹⁵ Garaipenez garaipen, herio ez zuen ia kukurik ere eginen. Baina oraindik ere bazen zailtasun bat. Zisjordia eta Gaza konkistatzean, milioi bat eta erdi palestinar baino gehiago Israelen okupazio militarren mende geratu ziren: gehiegi ziren azpihertitar gisa asimilatzeke (1950ean bezala), eta gehiegi, halaber, iheslari

15 'The Arab-Israeli Conflict' (elkarrizketatzailea: Peter Wollen), NLR 1/44, uztail-abuztua 1967, 30-45.

gisa kanporatzeko (1948an bezala), gerra luzatu ezean. 1967ko *Blitzkriega* [tximista-gerra] azkarregi joan zen, eta ez zen izan garbiketa sakonagoa egiteko astirik; egun gutxi haietan, 120.000 arabiarri soilik eragin zien «atzereraginezko transferentziak», eta kopuru hori ez zen inondik inora ere nahikoa Judeako eta Samariako demografia negatiboa aldatzeko. Zentzu hertsiago horretan, Deutscher zuzen zebilen. Israelgo elitea ez zen ados jarri ondorioak irakurtzeko garaian. Batetik, sionismo laborista zegoen; 1949an, Ben-Gurionen irrikeriaren egin eta Zisjordania behin betiko anexionatzeko-tan izan zen, baina, azkenean, zalantza egin eta aukera galdu zuen; orduz gero, beti pentsatu izan zuen auzoko Jordaniako erregimen haxemia, otzanetan otzanena, aukera onena zela eremu hura zaintzeko, ordainpeko jendarre gisa. Bestetik, Likud alderdiko sionistek oraindik uste zuten Eretz Israelek,¹⁶ definizioz, Judea eta Samaria ere barne hartzen zituela. Lehen aukera bertan behera geratu zen Jordaniak Zisjordaniarako zuen asmoa baztertu eta identitate nazional palestinarra onartu zuenean. Bigarrena gauzatzeko, aldiz, ezinbestekoa zen beste gerra bat hastea eta horrek kanporatze-olde bat eragitea, eta hori ez zen berehala gertatuko. Azkenean, *impasse* estrategiko bat etorri zen. Bien bitartean, bi aldeek lurralde okupatuetan juduen kokagune gehiago sortzeko programa bati ekin zioten, palestinarren bizitokiak gero eta gehiago bakartzeko eta itotzeko, ebazpen behin betikoago baten zain.

8

Nolanahi ere den, hogeituroko okupazio militarrek eta kolonien inbasioak herritarren erresistentzia ernalarazi zuen azkenean. Intifada 1987ko abenduan piz-

16 Israelgo Lurraldea Bibliaren garaian [Itz.oh.]

tu zen, eta, hasiera hartan, Gazako eta Zisjordaniako biztanle palestinarrez osatutako erresistentzia zibileko mugimendu arma gabea eta antolatu gabea izan zen. Ondoren, armen arteko borroka desorekatua etorri zen, nagusiki harri, makila eta labanak fusil eta metrailadoreen kontra. Altxamenduak agerian utzi zuen kontzientzia nazional zabalago bat iratzartzearekin batera gazteen belaunaldi berri bat sortua zela lurralde okupatuetan. Israelek lurralde konkistatuena gain zuen kontrola ez zen sekula arriskuan egon, baina, era berean, Israelen errepresioa ez zen matxinada zapuzteko gai izan. AEBk Gerra Hotzean eta Golkoko Gerran lortutako garaipenek ekarri zuten Intifadaren amaiera. Sobietar Batasuna desegin zenean, eta Washingtoni aurre egiteko gai zen Ekialde Hurbileko azken estatuak erreka jo ostean, palestinarren kausa bazterrean geratu zen, eta, hala, AEBko diplomazia erabat aske zen tradizio ezegonkorreko eskualde bat nahieran txukuntzeko. Madrilgo Konferentziak eta Osloko Akordioek Nazio Batuen Erakundea Ekialdeko Europara eta Balkanetako Gerrara hedatzearen pareko balioa izan zuten eskualdean: erabateko k.o. batek utzitako hari-mutur solte guztiak lotu behar ziren.

Horretarako, bi baldintza bete behar ziren: Israelen baterako ekimena eta Palestinak men egitea. Bigarrena errazagoa zen lortzen lehena baino. Arafat, Saddam goretsi ondoren, laster zen belauniko Clintoni erreguka. Mugimendu nazionalista batek inoiz sortu duen buruzagirik ezgaiena izanik, Washingtonek apenas izan zuen zailtasunik hura limurtu eta konponbiderako esleitu zitzaion papera betearazteko. Etxe Zuriaren arretak lausengaturik, otzan antzean agertu zen hasieratik. Israel gogatzeari zailagoa zen, ezezkoan eutsi baitzion Shamir lehen ministro izan

zen bitartean. Baina laboristek Jerusalemgo kontro-
la berreskuratu zutenean, Rabin eta Peres, Israelgo
inteligentzia-zerbitzuek ohartarazirik une hartan Ara-
fat zela Zisjordania eta Gaza urrutitik kontrolatzeko
aukerarik onena, aurrera egiteko prest agertu ziren.
Horren emaitza 1993ko eta 1995eko Osloko Akordioak
izan ziren: Israelen eta PAEren elkarrekiko aitortza
sinbolikoa; Israelgo Armada neurri batean Gazatik
eta Zisjordaniako eremu batzuetatik erretiratzea; eta
Palestinako Aginte Nazionala ezartzea «autogobernu-
rako, Arafatek Israelen okupazioaren aurkako eraso
guztiak zigortzeko konpromisoa hartzearen truke. Hori
izango zen «bake-prozesu»aren hasiera, geroago
zehaztu bako azken akordio bat ekarriko zuena; bien
bitartean, Palestinako Aginte Nazionala koipetuko zu-
ten: dohaintza eskuzabalak jasoko zituen Europatik eta
AEBtik, eta haren segurtasun-zerbitzuek eta Mossad-
ek elkarlanean jardungo zuten, CIA buru zela. Horixe
zen, Arafatek herritarrei azaldu zenez, estatu palesti-
nar independenterako errege-bidea.

9

Bakanetan txalotu izan da hain aho ba-
tez nazioarteko akordio bat Osloko Akordioak
nola: bosteko historikoak Etxe Zurian, Nobel saria
parte-hartzaile guztientzat, besteei edo norberari zu-
zendutako zorion-mezuak mundu osoko artikulua eta
liburuetan. Eskualdean, baina, errealitatea bestelakoa
zen. Hasiera-hasieratik, dio Benny Morris-ek, «okupazio
guztietan gertatu ohi den bezala, Israelen oinarrian ere
badaude indarkeria basatia; errepresioa eta beldurra;
kolaborazioa eta saldukeria; jipoiak eta tortura-gelak;
eta eguneroko larderia, umiliazioa eta manipulazioa».¹⁷

¹⁷ *Righteous Victims*, 341.

Alde horretatik, «bake-prozesu»aren etorrerak ez zuen ezer aldatu. Zer aldaketa ekarri ditu? Zortzi urteren buruan, Israelgo Armadak Zisjordaniaren % 60ren gain erabateko kontrola izaten jarraitzen du, eta kontrol «partekatua» beste % 27ren gainean; lur konfiskatuetan, israeldarrentzat soilik diren errepideen sare bat eraiki da, eta sare horrek Palestinako Aginte Nazionalaren mende geratzen diren azken barrutiak bereizi eta inguratzen ditu; kolonoek lurralde okupatueta ur guztiaren % 80ren monopolioa dute, eta juduen kopurua bikoiztu egin da ia; biztanleria palestinarraren *per capita* errenta % 25 murriztu zen Akordioen ondorengo lehen bost urteetan, eta ordutik are gehiago apaldu da. Oinaze horiei «estaturik gabeko polizia-estatu»aren¹⁸ tirania eta ustelkeria gehitu zaie orain, estatu horrek Israelen izenean bere herrikideak zapaltzeko eskumena duen eremuetan.

Baldintza horietan, ziur baino ziurragoa zen herri-matxinadak aurrera egingo zuela eta areagotzen jarraituko zuela ospe txarreko elite kolaborazionistatik aparte. 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, islamista erradikalek ugaritu egin zituzten itu israeldarren aurkako erasoak. Haiek borrokara bultzatzen zituen oldarra hausteko, Baraken erregimen laborista saiatu zen Arafat azken eta erabateko akordio batera bultzatzen: independentzia nominala eta eserleku bat NBEn agindu zizkion, eta, trukean, Israelek Zisjordaniako eta

18 Esapide hau Beverley Milton-Edwards-ek erabili zuen lehen aldiz, 'Internal Security and Citizenship under the Palestinian National Authority', in Nils Butenschoon, Uri Davis eta Manuel Hassassian (ed.), *Citizenship and the State in the Middle East*, Syracuse, NY 2000, 354. Lurralde okupatueta egoeraren kontakizun orokorrik indartsuena hau da: Edward Saiden 'Palestinians Under Siege', *London Review of Books*, 2000ko abenduak 14. Ikus baita Allegra Pacheco-ren laburpen harrigarria, 'The Oslo Process, Unfair and Unreal, Was Never Going to Work', *International Herald Tribune*, 2000ko urriak 6.

Jerusalemgo kokaguneak anexionatuko zituen, bandera palestinarren pean zegoen lurralde guztiaren kontrol estrategikoa eskuratuko zuen eta bertan behera geratuko zen, beti-betiko, iheslariak haien Israelgo etxeetara itzultzeko eskubidea. Arafatek, baina, halako errendizio batek izan zezakeen aurkakotasunaren beldur —esan nahi baitzuen alde batera uzten zuela 1967ko mugetara itzultzeko asmo oro—, eta sinatu ondoren berak izango zuen etorkizunarekin ikaraturik, azken unean uko egin zion hitzarmenari. Bi hilabete geroago, bigarren Intifada piztu zen. Oraingoan, altxamendua askoz bortitzagoa izan da, eta oinarria askoz zabalagoa, barne hartu baititu, militante fundamentalistekin batera, Al-Fataharen adar disidenteak, baita PANen aparatuko sektore batzuk ere. Baina indar-oreka ez da aldatu. Israelgo Armadak, bere kasa utziz gero, lepoa egin liezaioke erresistentziari edozein unetan.

10

Hasieratik, Edward Said izan da Osloko Akordioen kritikaririk ausart eta buruargiena. *The End of the Peace Process* [Bake-prozesuaren amaiera] liburuan, azken bost urteetan bere sorterriari buruz idatzitako artikuluak bildu ditu, eta lan profetikoa da. Bi alderdi konbinatzen ditu: alde batetik, zeharo uko egiten die palestinarrek beren zapalkuntza onar dezaten diseinatutako hitzarmenak apaindu dituzten hipokrisia eta faltsukeriei; bestetik, saihestu ditu akordioen aurkako jarrerekin batera azaldu izan diren apaindura eta konpentsazio erretoriko edo ordain alferrekoak. Sai-dek azkenaldiko historiatic ateratzen duen ondorio nagusiak Hegoafrikarekiko konparazioa du oinarri. Han, dio autoreak, Afrikako Kongresu Nazionala (AKN) erabat garaitua izan zen gudu-zelaian, eta erakundea

ia erabat suntsitu zuten herrialdearen barruan. Baina, atzerriko kanpaina etengabeen bidez, gai izan zen apartheidaren erregimena moralki deslegitimatzeko eta bakartzeko, halako moldez non azkenean Hegoafrikako biztanleria zuria ere —ordurako era guztietako boikotak jasaten ari zena nazioartean— negoziatzeko eskatzera iritsi zen eta, azkenean, bere zapalkuntza-aparatuak desegin zituen. Saiden ustez, erresistentzia palestinarrak ere halaxe jokatu behar luke, «berdintasuna izateko gure eta israeldarren artean; orain haiek menderatzen gaituzte, halako moldez non jada dimentsio morala baita gure gudu-zelai bakarra».¹⁹ Denbora luzez, PANek erakutsi du ez dela gai Mendebalari ulertarazteko zein den Israelen okupazioaren errealitatea, AKN erakundeak lortu bezala hainbeste urtez; autorearen ustez, horixe da kausa palestinarraren ahultasun estrategiko nagusia.

Argudioaren indarra egoera baten eta bestearen trebetasun limurtzaileen arteko aldean datza —zalantzarik gabe, aski nabarmena—, baita Saiden defentsaren adibide hunkigarrian ere. Argudioaren muga, berriz, Hegoafrika eta Israel kolono-estatueta-ko zapalduen egoera objektiboen arteko egiturazko desberdintasunean dugu. Erregimen afrikanerra gutxiengo batek kontrolatutako *lager* bat zen, metropoli baten babesik apenas zuena; Herbehereetan gaitzetsia zen, eta Mendebaleko gainerako herrialdeen aldetik gehienez ere negozioetarako eta burokraziarako isilpeko prestasuna lor zezakeen. Hegoafrikatik kanpoko ezin politikarik ezin zuen ageriki babestu apartheidia. AEBn, gainera, hautesle multzo zabal-zabal batek behala eta suhartasunez bat egin zuen Hegoafrikako gehiengo beltzarekin, hau da, apartheidaren bikti-

19 *The End of the Peace Process: Oslo and After*, Londres 2000, 195-199.

marekin. Estatu Batuetako sistema politikoan, baita administrazioerik erreakzionarioaren pean ere, ezin baztertu zen afro-amerikarrek Pretoriaren aurka zerabilten presioa. Kausa palestinarraren egoera guztiz bestelakoa da.²⁰ Orain AEBko arabiar immigranteen kopurua oso esanguratsua bada ere, gehienak beharginak dira: pobreak, sakabanatuak eta bazterrekoak gizarte-hierarkian. Israelek, berriz, leialtasun sendoa du AEBko klase ertaineko juduen artean, eta Europako espektro politikoaren luze-zabalean ere oso begi onez ikusia da. Munduko borondate moral onena izanda ere, ia ezinezkoa da Ekialde Hurbilean Hegoafrikako egoera errepikatzea. Israel bakartzeko eta palestinarrekiko elkartzasuna zabaltzeko ahaleginak inoiz baino beharrezkoagoa izaten jarraitzen du. Baina ameskeria da pentsatzea nazioarteko iritzi publikoak bere kabuz eragin esanguratsua izan dezakeela sionismoaren gainean. Egoera historiko batzuetan, argudio moralaren indarra erabakigarria izan daiteke, esklabo-trafikoaren abolizioak edo apartheidaren azkenak erakusten duten bezala. Baina horrek eskatzen du edo gatazka politikoetan erabakigarriak izan ohi diren interes material handien gabezia erlatiboa, edo haien arteko oreka bat, pertsuasio moralak ebatz dezakeena. Ekialde Hurbilean, gaur egun, ez da betetzen ez baldintza bat ez bestea.

20 Hemen alderatzen da zer aukera objektibo duen mugimendu bakoitzak Mendebaleko iritzi publikoan eragiteko. Harirago datoz, jakina, bi zapalkuntza-egoeren arteko egiturazko desberdintasunak. Apartheidaren erregimenak herrialdearen eskulan nagusi gisa esplotatu zuen langile-klasea, eta horrek funtsezko abantaila historikoa ematen zien langileei; palestinarrek, berriz, ez dute halako abantailarik izan, baztertu egin dituztelako Israelgo industriatik. Kontraste horren ondorio politikoak aztertzen dira Mona Younis-en ikerketa konparatibo harrigarrian, zeina funtsezko lana baita gaur egungo egoera ulertzeko: *Liberation and Democratization: The South African and Palestinian National Movements*, Minneapolis 2000.

11

Horrek ez du esan nahi arrakalarik gabeko bat-etortze goxoa denik. Saidek berak arrakala horietako bat azpimarratu izan du *New Left Review*ko orrietan. AEBn, dioenez, Israel kritikatzea «tabuetan tabuena» da, Estatu Batuak berak kritikatzea baino askoz arrisku-tsuagoa eta bakanagoa.²¹ Urte luzez, AEBko sionismoak ez du ia zailtasunik izan desadostasun larriak mendeen hartzeko; juduen aldetik badatoz, «autogorrotu»tzat jotzen da automatikoki; jentilengandik badatoz, «anti-semita»tzat. European iritzi-aniztasun handiagoa dago, baina parametroak ohi bezain estuak dira. Goi-mailako judu intelektual gehienentzat —oro har ikuspegi kontserbadore, liberal eta sozialdemokratentzat bezala—, genozidio naziaren oroimenak aldizkako zalantza eta damuez haraindiko guztitik babesten du Israel, eta hori ere laster uzten da alde batera larrialditzat jotzen den edozein egoeratan. Golkoko Gerrako erreakzioak sentiberatasun horren Rorschach testak direla jo daiteke. Palestinarren patu zorigaiztokoa toki orotan negartzen da; «bake prozesu»ari buruz zintzoki berba egiteko prest daudenak, berriz, gutxi izaten dira.

Bestalde, Israelen bertan, Saidek dioenez, diasporan blasfemiatzat joko liratekeen egia biribilak entzun daitezke. Hantxe azertu da beste inon baino sakonago sionismoaren dinamika kolonizatzailea; dokumentatu dira palestinarrak kanporatzeko mekanismoak eta neurriak; azaleratu dira potentzia inperial batekiko eta ondorengoarekiko elkar aditzeak; protestatu da torturaren legezko berrespenaren kontra; salatu da estatuaren izaera konfesionala. *Ha'aretz*en alderatu dira askatasunez Itzulera Legea eta Nurenberg-eko Kodea, eta ez *New York Times*en, *Guardian*en, *Le Monden*

21 'America's Last Taboo', NLR 6, 2000ko azaro-abendua, 45-53.

edo *La Repubblica*. Azken urteotako bilakaerari begiratuta, akademiko talde eta iritzi-sektore —oraindik txiki— «post-sionista» baten agerpena izan da apartena.²² Agerpen horren testuingurua, halere, gehiegizko baikortasun ooren aurkako ohartarazpena da.

12

1990eko hamarkadatik aurrera, Israelgo ager-toki politikoa AEBkoaren gero eta antz handiagoa hartuz joan da, nahiz eta oraindik ere badituen ukitu europar batzuk. Alderdi ekonomikoari dagokionez, neoliberalismoak ezabatu egin ditu 1950eko hamarkadan ezarritako marka tradizional gehienak, laboristek Likudekin norgehiagokan jardun dutelako, eta maiz hura gainditu, desarautzeko eta pribatizatzeko teman. Israelgo korporaziorik handiena, Histadrut-en inperio industrialaren pieza nagusia, Disney-k erosi eta birsaldu zuen; konplexu medikoa Rabinen garaietan desegin zuten; herrialdeko bankurik handiena —garai batean Histadrutena izandakoa— Netanyahu-k pribatizatu zuen. Gaur egun, Sharon-en gobernua lurra pribatizatzeko planak egiten ari da, soilik juduentzat eta atzerritar egokientzat, noski. Hamarkada batean, sektore publikoak BPGn zuen partea erditik ia herenera jaitsi zen, eta inbertsioetan, berriz, % 85etik % 15era. Gaur egungo Israelen, gastu soziala AEBkoa baino txi-

22 *Post-sionismoa* termino lauso eta, nolabait, engainagarria da. Funtsean, Israelgo estatuaren mitologia ofizialaren gaitzespena eta egia historikoarekiko konpromisoa adierazten du, edozein direla ere horrek emantzipazio nazionalaren historian dituen ondorioak. Horrek ez du inolako haustura politikorik eragin behar sionismoarekin, hau da, Ekialde Hurbileko estatu juduari ohiko babesa ematearekin. Ildo post-sionistako kideen artean Israelen *status quo*aren onargarritasunari buruzko askotariko iritziak daude; kritikari erradikalek gutxiengoa izaten jarraitzen dute. Iritziei buruzko galdeketak kontsultatzeko, ikus Laurence Silberstein, *The Postzionism Debates*, Londres, 1999.

kiagoa da. Herrialdea mundu kapitalista aurreratuko bi gizarte desorekatuenetako bat da.²³

Baina, Estatu Batuetan bezala, Israelen ere gertatzen da bi alderdi nagusiak bat etortzea gai ekonomiko eta sozialetan —batzuetan, haien artean trukagarriak izateraino— eta, aldi berean, haien oinarriko hautesleak argiro elkarrengandik urrunekoak eta kontrako profil ideologikokoak izatea. Ñabardurak ñabardura, bi alderdi nagusiek kapitalismoarekiko miresmen bera erakusten dute.²⁴ Gainontzean, AEBn baino are neurri handiagoan, funtsezko politikak zenbat eta antzekoagoak izan, are zizkolatsuagoa da bigarren mailako desberdintasuna. Demokratekin eta errepublikanoekin gertatzen dena laboristekin eta Likudekoekin ere gertatzen da: benetako kontraesanekin inolako zerikusirik ez duen *Kulturkampf* [kulturen arteko talka] batek grina alderdikoiak pizten ditu, lehiakideei ere elkarren arteko batasun sakonagoa ezkutatu nahian bezala. AEBn baino are neurri handiagoan, mundu akademiko eta intelektualaren gehiengoak «zentro-ezker»aren ingurune *bien-pensant* bat osatzen du.²⁵ Baina komertzioa

23 Ikus Shafir eta Peled, *The New Israel*, 111-112, 194, 223, 233-234.

24 Yossi Beilin, Israelgo Peter Mandelson, Osloko Akordioen ideologo nagusia, honela mintzatu zen berriki: «Ez dut uste bidezkoa denik esatea laboristok bide kapitalistari ekin geniola; sozialdemokratik gara, eta Hirugarren Bidea hautatu genuen, Anthony Giddens-ek defendatu eta Tony Blair-ek eredutzat hartu zuenaren antzekoa»: *Tikkun*, 2000ko irail-urria, 11. Zisjordaniako kokagune eta errepide estrategiko berriak eraikitzeko lanen burrunbaren erdian, Barakek denbora aurkitu zuen Giddensen liburuaren kopiak bere kabineteko kide guztiei banatzeko.

25 Eskuinak Israelgo elite kulturalaren aurka egindako eraso indartsu bati buruz gehiago jakiteko, ikus *The Jewish State: the Struggle for Israel's Soul* (New York 2001), Yoram Hazony. Hazony Netanyahuren aholkularietako bat da, eta berak *trahison des clercs* gisa jotzen duenaren irudi bizia eskaintzen du: intelektual nagusiek fedea galdu dute, hura hasieratik arbuaiatu zuten eta formakuntza alemana duten filosofo eta historialari gutxi batzuen (Buber, Scholem, Prawer, Talmon, etab.) eragin adoregabetzailearen ondorioz. Hazonyk deitoratzen duen eszenatokiaren parterik handiena interesgabea da, baina ideia oro

eta erlijioa nagusi diren kultura batean, haien eragin politikoa —AEBn bezala— oso azalekoa da. Nolanahi ere, Israelen eta Estatu Batuen artean bi desberdintasun daude oraindik. Ordezkaritza proportzionaleko sistemaren ondorioz, juduen sekta guztiz ugariek ordezkaritza lortzen dute hauteskundeetan, eta horrek, oro har, Knesset-eko (Israelgo Parlamentuko) koalizioetarako gako bihurtzen ditu. Hortaz, Likudek alderdi errepublikanoak baino zama erlijioso txikiagoa dauka. Haren boto-emaileak ere ez dira hain dirudunak, jarraitzaile nagusiak Ipar Afrikako eta Ekialde Hurbileko immigrante sefardi behartsuenen artekoak direlako, zeinak gutxien baitituzte Europa ekialdeko askenazi jantziagoek, laboristen oinarri tradizionala osatzen dutenek. Beraz, Israelgo bi alderdien artean klase-alborapen bat dago, eta horrek alderantzikatu egiten du AEBren eredu. Immigrante errusiarrak, segurtasunaren zaintzaile zorrotz eta neurri berean antiklerikalak, dudazko boto-emaileak dira. Behatzaile israeldar batek ondo baino hobeto laburtu du sistema horren ondorioa: «Gaur egun, Israelgo antzerki soziopolitikoko aktore nagusiak eskuinekoak dira: goi-mailako klase kapitalisten eskuin sozioekonomiko liberala —Israelen, ezkerria deitzen zaio— eta behe-mailako langile-klaseetako eskuin etnoerlijioso fundamentalista —Israelen, herria esaten zaio—».²⁶

gutxien duen filisteismo orokorraren salaketa zabalagoa egiten du, eta salaketa horrek egiatzkoa dirudi. Laborismoaren kultura tradizionalak —matxismoaren eta sentimentaltasunaren arteko nahasketa, zeinaren pertsonifikazio tipikoa baita, adibidez, Amos Oz idazlea— ez du askorik laguntzen Hazonyren kritikak gaitzesteko —Begin eta haren kideak ere ez daude halakoetatik salbu—.

26 Uri Ram, 'The Promised Land of Business Opportunities: Liberal Post-Zionism in the Global Age', in Shafir eta Peled, *The New Israel*, 236.

13

Itxaropen eskaseko agertoki horretan jokatzen da sionismoaren etorkizuna gaur egun. Testuinguru horretan, bi alderdi nagusien arteko aldeak, laboristen eta errebisionisten tradizioen arteko antagonismo aspaldikoan errotuak, funtsezkoa izaten jarraitzen du, taktikoa bada ere. Sionismo laboristak era bateko edo besteko atzerriko babesleengana jo izan du beti, eta, haiei atsegina ematearren, politiketan aldi baterako egokitzapenak egiteko prest azaldu izan da. Jarrera pragmatikoa dute: izenek gauzek baino balio txikiagoa dute. Tradizio errebisionista, ospe intelektual handiagokoa, beregainagoa izan da, eta malgutasun txikiagokoa: oraindik ere, izenek gauzen berri ematen dute. Hortaz, laboristek uste dute palestinarrei pare bat *bantustan* emanda eta kolonoen eta soldadu israeldarren presentziarekin haien mugimenduak kilometro gutxirik behin mugaturik baretu egingo direla Washingtingo larridurak eta desagerrarazi egingo dela orain Israelentzat gatazka-eremu bat dena, kostu erreale txikiarekin; Likudek, oster, sionismoaren historia gogoan, uste du gosea janez egiten dela eta gaur izendapen hutsa dena bihar nolabaiteko errealtate bihurtu daitekeela. Ez alde batek ez besteak ez du palestinarren burujabetza nazional erreala aintzat hartzeko asmorik. Zisjordaniako eta Gazako herritarren benetako nahiaurre egin beharrez, elkar hartzen dute berehala, eta, horrenbestez, gaur egungo Sharon-Peres erregimena dugu. Horren atzean, sinesgogortasun eta suminezko *union sacrée* bat hedatzen da espektriko politikoan, Camp David-ek uko egin diolako israeldarrei «kontzesioak» egiteari.

14

Testuinguru horretan neur daitezke post-sionismoaren ausardia eta koldarkeria.²⁷ Gaur egun, oso ezaguna da Benny Morris, Avi Shlaim, Gershon Shafir, Baruch Kimmerling eta Tom Segev-ek egindako lanaren maila intelektual bikaina. Mitologia sionista ofizialaren eraikinak banan-banan eraitsi dituzte. Nolanahi ere, auzi politikoak azaldu orduko bertan behera geratu dira iraganean haien lanen ohiko ezaugarri izan diren ikerketa ausarta eta zuhertasun tinkoa. Lehoi analitiko izandakoak esaneko bildots bilakatu dira. Haietako bakar batek ere ez zuen zintzoki adierazi Oslori buruzko zalantzarik, are gutxiago Camp Daviden ingurukorik. Batek baino gehiagok Barak lausengatu zuen. Inork ez du proposatu «bake-prozesu»an azaldu-tako hipokrisietarako alternatibarik.

Zeinek izan behar luke alternatiba? Historikoki, Yishuven barruko joera batek uste zuen arabiarren eta juduen artean berdintasunean partekatutako bi nazioko estatu batek soilik ekarriko zuela justizia Palestinara. Tradizio ez-sionista hori batez ere alemaniar jatorriko juduen artean zegoen zabaldua; Jerusalemgo Unibertsitate Judua zuen indargune, eta mugimendu komunistan aurkitu zuen bere adierazpen politikoa. Edward Said joera hori berpizten saiatu da, baina ia galduta dago gaur egungo Israelen. Desiragarria izan daitekeen arren, era horretako irtenbide batek erreka joko zukeen ezinbestean, kontuan hartuta bi nazionalismo etniko antagonista daudela, biak

27 Post-sionismoaren barruan bada korrante erradikal bat, sionismoaren beraren premisak gaitzesten dituena eta mugimendu nagusitik bereizi behar dena. Korrante horretan, badira aurrizkia onartzen ez dutenak. Ilan Pappé historialariak nahiago du «a-sionismo»az hitz egin. Gertaeren argitan, baliteke post-sionismoaren esparruan bereizkuntza politikoa gehiago gertatzea.

ere autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzeko zilegitasunaren jabe.

Horrenbestez, lurra banatzeko aukera baino ez zen geratzen. Akordiorako egitasmo guztietan, Palestina zatitzea eskatzen zuten. Zein da Israelen proposamena, zer egitasmotatik aldendu behar du, oraindik ere, post-sionismoak? Lau axiomatan oinarritzen da, eta horietan zehazten da zer tamaina, kokapen, segurtasun-neurri eta ekonomia mota izango lituzkeen autogobernuaren kategoria edo estatuaren izendapena jasoko lukeen edozein hondar-entitate palestinarrek. Tamaina: herrialdearen bostena baino gutxiago: Israelek 1948-1949an irabazitako lur palestinarren % 78 eskuratuko du, baita Jerusalem ere, eta Zisjordaniako kokaguneen parte handi bat, hau da, beste % 5-6 inguru gehiago edo. Kokapena: bi barrendegi palestinar lokabe, gerraurreko herri nagusirik ez, ezta portu naturalik ere. Segurtasuna: armadarik ez, polizia nazionala besterik ez. Ekonomia: ondasun arabiarrek arpilatzeagatiko kalte-ordainik ez.

15

«Bake prozesu»aren muin-muineko proposamen horien bidegabekeriak ahopeko gaitzespen batzuk baino ez ditu eragin diasporan, non elkartasun etniko ia unibertsala printzipio moralen gaintetik baitago; zer esanik ez Israelen. Nolanahi ere, proposamenok irtenbide onargarri baterako erreferentzia-puntutzat har daitezke. Duela hamarkada bat, Guy Mandron ofizial frantsesak, Israelgo agintarien ikuspuntu militarren nolabaiteko ezagutzarekin, banaketa bat proposatu zuen Palestinarako, eta egitasmo hark bazuen dohain bat: gutxienik ere, bidezko kolonizazio baterako ezinbestekoak diren bi irizpide aintzat hartzen zituen.

Mandronen proposamenaren arabera, etorkizuneko estatu palestinarrek lurralde jarraitu bakar bat osatu behar du, eta armen bidez Israel bezain defendagarria izan behar du. Onuragarria da oso haren mapei begiratzeari, argi ikusten baita erabateko aldea dagoela horien arabera izango litzatekeenaren eta gaur egun «eskaintzen» denaren artean. Are onuragarriagoa ohartzen garenean egitasmo horrek ez diola ezertan eragiten proposatutako bi estatuen arteko lurren banaketa garbiari, eta ez diela hiri nagusirik edo porturik itzultzen palestinarrei. Mandron ez da saiatzen justifikatzen zergatik mantentzen dituen gaur egungo azalera-proporzioak, eta, hala, beste abiapuntu batzuk ere badirela nabarmentzen du.

Gaur egun, sei milioi judu inguru bizi dira Israelen, eta sei milioi inguru palestinar daude sakabanatuta lurralde okupatuetan eta alboko estatuetako kanpalekuetan, baita Israelen ere. Biztanleria pareko horien artean lur-banaketa bidezko bat egiteko, ezinbestekoa da baliabideak ere ekitatiboki banatzea. Zatiketa justu baten lurralde-egiturak Mandronek proposatutako egitasmoaren antzekoa izan behar luke nola edo hala, alde batera utzita hark Israeli aitortzen dizkion kalte-ordainak, eta Haifa ere barne hartuta, non biztanleen bi heren arabiarrek baitziren 1947an; bestela esanda, lurralde palestinarren bloke bakarra, alde batera utziko lukeena Gaza eta barne hartuko litzukeena Zisjordania eta ekialdeko Jerusalem, Galilea eta, orobat, Libanotik Haifarainoko itsasertza. Palestinak zerrenda bat osatuko luke Israelen aldamenean, haren gaineko muturra okerturik, L itxurako bi estatu eratzeraino. Israelen lurretan egonagatik ere jatorriz 1950ean arabiarrei kendutako jabetzengatik kalte-ordainak — akordio baterako azken funtsezko baldintza — muga

berrien ondorioz beren etxeetara joaterik izango ez luketen palestinarrentzat izango lirateke, eta Israelen erroldatuta egonik han jarraitzeko hautua egingo luketentzat.

16

Baldintza horiek adituaz batera, sorbaldak deitoragarriki uzkuratzen dituzte sionismo liberalaren eta post-sionismoaren *belles âmesek*: «Hori guztia ongi dago, baina politika-eredu hori ez da inondik ere baliagarria». Alegia: daukaguna gurea da. Iritzi-ildo horretan ez dago asmorik txikiena ere harrapatutakoa berreskuratzekeo asmoei aurre egin beharraz iltzez eta giltzez itxitako herrialdearen % 78ren metro karratu bakar bat ere lagatzeko, ezta pentsatzeko ere gainerako % 22aren zatitxo batez gabetzea «kontzesio mingarri» bat besterik izango ez litzatekeela.²⁸ Hona zer dioen Benny Morris-ek:

Israelek bere partea bete du: PAE onartu du, eta Palestina bitan zatitzeko beharra onartu du, estatu judu bat eta estatu palestinar txikiago bat. Hori iraultza izugarria da, kontuan hartzen badugu 1948-1992 aldian israeldarrek gai honen inguruan zuten jarrera. Barak urrunago ere joan da, eta Jerusalem banatzea ere onartu du. Baina Israelek badaki itzulera-eskubidea onartzu gero suntsitua izateko arriskua hartzen duela.

Hona hemen Tom Segev-ek aho-legarrik gabe esandakoak:

Barak eskaintzen ari zenak askoz ere eskuzabalagoa ematen zuen xehetasunei begiratu aurretik (sic). Dirudienez, elkarren ondoan ez dauden irilatxoak eskaintzen ari gara, Israelen kokaguneeek bereziak, Israelgo Armadak kontrolatutako errepideekin. Beraz, hauxe da egia: ez genien eskaini tratu on bat.

²⁸ Benny Morris, *Righteous Victims*, 651.

Eta bestela bezala jarraitzen du:

Denborarekin ohartu naiz gatazka saihestezina zela, gerra saihestezina zela, eta orain, kokaguneak jada finkatuta daudenez, saihestezina dela gatazkak aurrera egitea, eta aldi honetan ez dela bakerik izango. Beti kokaguneen aurka egon izan naiz, baina orain hortxe daude... Egitate berriak dira, ezin dituzu herriak osorik hustu.

Eta hona zer dioen David Grossman-ek, palestinarren egoera larriarekiko enpatia agertzeagatik goraipatua bera:

Barakek den-dena jarri zuen mahai gainean. Oker egin zuen, baina uste dut orain israeldar gehienok badakigula zeri egin behar diogun uko benetako bakea lortzeko. Nire ustez, Ariel Sharon hautatu izanak erakusten du israeldar gehienek ez dutela nahikoa heldutasun horrelako kontzesioak egiteko. Palestinarrei entzuten diedanean ere, ez dut argi egin behar dituzten kontzesioak egiteko prest ote dauden, hau da, itzule-ara-eskubidearen aldarrikapenari uko egiteko prest.²⁹

Edo, Jerome Slater-ek —sionismo aurrerakoia-
ren modako ahotsa, palestinarrekin «bakezkoak»
egitearen aldeko sutsua, Osloko Akordioen ildokoa—
artoski esan bezala, azaltzen ari zelarik zergatik ezin
zaien utzi itzultzen: «Denboraren joanak, errealitate
praktiko berriak eratzeaz gain, errealitate moral be-
rriak eratzen ditu, edo konplexuagoak behinik behin.

29 Hurrenez hurren: *Tikkun*, 2001eko martxo-apirila (Morris); 2001eko urtarril-otsaila (Segev); 2001eko maiatz-ekaina (Grossman). Shlaimek, Barak inork baino biziago goraipatu ondoren —haren ustez, Barak boterera heltzea «lurrikara bat baino gehiago izan zen. Hiru urte ilun eta izugarriren osteko egunsentia izan zen»—, hauxe idatzi du orain: «Osloko Akordioek ez zuten huts egin: Ehud Barakek zapuztu zituen. Akordioak interes komunak identifikatu eta lantzeko egiten dira». Bere ustez, «Israelek Zisjordaniaren % 10 inguru anexionatzea, non kolono gehienak bizi baitira, estatu palestinar desmilitarizatu bat» utziz, eta «hiriburua Abu Dis-en kokatuz, Jerusalem udal-mugartearen kanpoaldean, haren ondo-ondoan», «aldeko baldintzak» (sic) dira. *London Review of Books*, 1999ko irailak 16 eta 2001eko urtarrilak 25.

Kontua ez da “ahalak bidezko egitea”; aitzitik, ahalmen moduan hasi zena bidezko bilaka daiteke, edo, gutxienik ere, eskubide». ³⁰ Arrazoibide horren aurrean, tradizio errebisionista zintzoagoa eta kontsekuentea goa da. Zergatik ez eman ahalmenari denbora apur bat gehiago bere lana egiteko? Baldin eta bidezkoa bada herrialde baten lau bosten eskuratzea, zer du txarra lana amaitu eta lur guztia hartzeak? Jainkoak ez zuen zatitu, osorik eman zigun. «Bake-prozesu»aren miseria intelektualaren aurrean, zeinari post-sionismo hori etsi-etsian atxikitzen zaion, Eretz Israelen argudioa ez-tabaidaezina da.

17

Israelgo Armadaren aurkako erresistentzia suharretan suharrena izanda ere, palestinarrak ahulegiak dira orain edo etorkizunean justizia beren kabuz lortzeko itxaropenik izateko. Lehenago edo geroago, eta ziurrenik lehenago geroago baino, sionismo laborista Camp Davidez baliatuko da palestinarrak estutzeko. Arafaten erregimenaren senak sakon errotua du, esapide arabiarri jarraituz, «gauzak presaka egitea». AEBren ordainsarien mendeko, eta CIAren jarraibideetara ohitua, herritarren aldetik merezitako zigorra jasotzeko beldurak soilik bridatzen du. Intifadak aurrera egiten duen bitartean, kontrolik gabe aurrera egin ere, PAN denbora irabazten saiatuko da. Baina ezein altxamenduk ezin du betiko iraun. Blokeo gupidagabearen eta frankotiratzailleen mende, baliteke herritarren artean nekea zabaltzea eta, orduan, edozein bake gerra desorekatuarekin jarraitzea baino hobetzat jotzea. Nork lepora liezaieke ezer? Or-

30 Jerome Slater, "Can Zionism be Reconciled with Justice for the Palestinians?", *Tikkun*, 15. lib., 4. zk., 2000, 25.

duan, eszena hunkigarriak izango dira berriro Etxe Zuriko belardian, eta zorion-parrasta bat etorriko da «nazioarteko komunitate»tik. Bitartean, sasiestatu zatikatu bat sortuko da hor nonbait Jordaniaren mendebaldean, haren eliteko kideak esker oneko funtsekin polito dirutuak dituela. Israelek badaki nola kudeatu eskumendeko arabiar bat: Arafat, Haddad komandanteburuaren paperean; Palestinako Aginte Nazionala, Hegoaldeko Libanoko Armadaren paperean. Ikusteke dago, noski, palestinarrak modu horretan mendera daitezkeen mugagabeki. Atzean geratu dira midian-darrak eta amalektarrak haien oroimenaren arrastorik utzi gabe desagerraraz zitezkeen garaiak. Israelgo iritzi publikoa jakitun da horretaz. Horregatik, palestinarren estatu-antzeko batekin lotuta egoteko baldintza guztietan negoziatzinena, zeinari buruz sekula ez baita entzun desadostasun esanguratsurik, zera da: Israelek erabat armaturik jarraitzea eta palestinaren estatuak, berri, ezin baliabide militarrik ez edukitzea. Hala behar du, zeren, bestela, nola egingo dute lo lasai lurren % 78ren bahitzaileek, haien gerra-txakurrak inguruan zelatan ibili arren? Eskaera horrek, eskuineko israeldar guztiek ontzat ematen dutenak, agerian uzten du jatorrizko krimen barkaezina.

18

Ez dago beste aukerarik? Botere israeldarrak indarraren aurrean baino ez du amore emango. Baina bereak Akilesen orpo bat du. Azken beltzean, Israelgo estatuaren defentsak eta arrakastak Estatu Batuen mende egoten jarraitzen dute. Haren zoria atzerriko babesaren arabekoa izan da beti, eta ezin izango luke iraun halakorik gabe. Baldin eta inoiz estatubatuarrek sionismoa babesteari utziko baliote, azken horren

intrantsigentzia berehala hondatuko litzateke. Alde horretatik, Israelgo iritzi publikoaren zurruntasuna dirudien baino hauskorragoa da, Israelek ezinbestekoa baitu estatubatuarren oniritzia. Baldin eta Washingtonek Jerusalemen azpiko tapizari tira egingo balio, luzaro gabe ustekabeko jarrera-aldaketak gertatuko lirateke. Baina nola liteke AEBk halako traizio bat buroan erabiltzea? Horren erantzuna mundu arabiarra du, 1950eko hamarkadatik aurrera izan duen bezala. Bi indar arabiar nagusiek —Egipto biztanle-kopuruagatik eta Saudi Arabia petrolioarengatik— AEBren estatu bezero izaten jarraitzen duten bitartean, Ekialde Hurbila eta haren petrolioia seguru izango dira AEBren eskuetan, eta ez dago Israelen apetei ezetz esateko arrazoirik. Baina hori inoiz aldatuko balitz, palestinarren patua berehala mudatuko litzateke. AEBk dirutza handia inbertitu du Kairon Mubarak-en diktadura pipiak janari eusteko, Egiptoko masek adeitsuki erdeinatu arren, eta ez du ahalegin gutxi egin Riad-eko plutokrazia feudala babesteko, eskubiderik gabeko immigranteen itsaso baten gainean altxatutako hiria bera. Bi eraikin horietako bat eroriko balitz —kasurik onenean, biak—, eraldatu egingo litzateke eskualdeko botere-oreka.

Arabiar munduaren azken mende Erdiko Zorigaiztoko historia politikoak ez du arrazoi handirik ematen pentsatzeko erorketa hori epe motzean gertatuko dela. Bestalde, ezerk ez du bermatzen ondorengo erregimenek Nasser-en aurrekariak eta haren garai-ko beste hutsegite batzuk hobetuko dituztenik. Baina ezein oreka ez da betiko, ezta Ekialde Hurbilean ere. Eskualdeko botere-sistemaren edozein haustura errealek AEBren iparrorratza dardaraziko du. Nilo edo Meka inguruko erregimen benetan independenteek beren tokian jarriko lukete laster harreman sionisten

garrantzia. Baliteke odola ura baino lodiagoa izatea, baina petrolioa bietako edozein baino lodiagoa da. Palestinarren gatibutasuna Ekialde Hurbilaren mendekotasun zabalago baten ondorio da. Mundu arabiarrek Washingtonerantz presatzeari uzten dion egunean — inoiz uzten badio—, Israelek bere irabazi neurrigabeak itzuli beharko ditu. Hori gertatu ezean, ez dago sionismoari jarrera aldarazteko aukera handirik.



BI SIONGO ETXEA

Mende berriarekin batera, arabiar estatuak Mendebalaren esku-hartze militarerako eremu bilakatu dira, Gerra Hotzaren osteko goriarena: Estatu Batuek Irak inbaditu zuten; NATOk Libia bonbardatu; AEBren manupekoek Sirian esku hartu dute; Golkoko Lankidetzarako Kontseiluak Yemeni eraso dio Washingtonen babespean. Eta haien betiko etsaia? Bigarren Intifadaren denboran, *New Left Review*en argitaratutako artikulu batek aztertu zuen zein zen bi nazionalismoen —sionistaren eta palestinarren— arteko indar-korrelazioa, Osloko Akordioen desberdinkeria gordinetan islatu bezala.³¹ Orduz gero, zenbateraino aldatu da? Zisjordanian, oso gutxi. Lehen Intifada palestinar belaunaldi berri baten matxinada izan zen; aktibistak eskualdeko unibertsitate sortu berrietatik zetozen. Okupatzaileen konfiantzazko handiki esanekoak alboraturik, hiru urteko olatu bat gidatu zuten, manifestazioak, grebak, boikotak eta kolaboratzaileen aurkako ekintzak bul-tzatuz. Palestina Askatzeko Erakundea (PAE), Tunisko

31 'Scurrying Towards Bethlehem', NLR 10, 2001eko uztail-abuztua.

erbestean, ustekabeen harrapatu zuen horrek, eta ia ez zuen parterik izan. Libanoko baseetatik egotzirik eta, Golkoko Gerraz geroztik, Saudi Arabiak eta Kuwaitek diruz hornitzeari utzi ondoren, Osloko Akordioek bizi-berritu egin zuten erakundea, eta arrandiaz itzuli zen aberriaren hondarretara.

Palestinako Aginte Nazionala, 1994an eratua eta nazio-askapenerako borrokaren mugarri izan zena, Mendebalak eta Israelek elkarlanean diseinatua da, eta haren egiteko nagusia ez zen sionismoaren aurkako erresistentzia gorpuztea, ezpada hura geldiaraztea. Mendebalaren ikuspegitik, arabiar asalduraren bazterreko gune bat txukundu beharra zegoen Basamortuko Ekaitza operazioaren garaipenaz gero, Munduko Ordena Berria biribiltzeko. Israelen ikuspegitik, Palestinako Aginte Nazionala Israelgo Armadaren ordezko errentagarria izango zen lehen Intifadaren kimuak birrintzeko, zeren halakoek Zisjordanian sortzen ari ziren kokagune juduak arriskuan jar zitzaketen eta horiek hedatzeko beharrezkoa zen aparatu paramilitar indigena batek eskain zezakeen ingurune seguruagoa. Hastetik bere-tik, Palestinako Aginte Nazionalak ez zeukan irauteko modu autonomorik: diru-sarrerren % 70-80 Mendebaleko laguntzetatik eta Israelen transferentzietatik zetozen. Estatu errentista baten miniatura bizkarroi bat eraikia zen horrenbestez, biztanleriatik bereizia, zeren materialki ez zegoen biztanleria horren mende eta, beraz, bazeukan haren beharrak aintzat ez hartzea. Pagatzailleen eskaerak ziren lehentasuna, ezinbestez.

Arafaten erregimenak pentsatu zuen matxinadak kolokan jar zezakeela beraren lidergoa, eta, Zisjordaniara aldatutakoan, azkena eman zion mugimenduari. Lehengo betiko handikiak bueltatu ziren Al-Fataharen inguruan eraikitako botere-egiturara.

Egitura hori Tunisiatik paraxutez ekarria zen, eta kolaboratzaileen bidez hedatu zen.³² Osloren aurreko urtean, kontrol militar osoa artean Israelgo Armadaren esku zegoelarik, Lurralde Okupatuetakoa administrazio zibilak 27.000 lagun zituen, ia denak palestinarrak. Mende berrirako, 140.000ra iritsia zen Palestinako Aginte Nazionalaren nominapekoen kopurua, zeinetatik 60.000 inguruk osatzen zuten beraren segurtasun-sarea. Baziren hamabi indar errepresibo lehian —jendarmeria, polizia sekretua, presidentearen guardia, inteligentzia militarra, indar bereziak, kostazainak eta beste—, Zisjordania polizia-proporzio handiena zuen munduko lurraldea bihurtzeraino: agente bat hamasei pertsonako.³³ Segurtasun-antolamendu hanpatu horrek, CIAk eta Jordaniak trebatua eta tresnatua bera, zeinean tortura ohikoa baita, aurrekontuaren heren bat bereganatzen du, hezkuntzako eta osasungintzako gastuak batera hartuta baino gehiago. Ez dago prestatuta oku-

32 Ikus Glenn Robinson, *Building a Palestinian State: The Incomplete Revolution*, Bloomington eta Indianapolis 1997, 174-200; 'The Palestinians', in Mark Gasiorowski (ed.), *The Governments and Politics of the Middle East and North Africa*, Boulder (AEB) 2013, 362-363. Robinson Itsas Armadaren Graduondoko Eskolan defentsa-analista da, gai horretako aditu behinena. Itxuraz analogiaren galgarriaz ohartu gabe, PANen beste azterlan batek konparatu ditu, bateko, Arafaten Tunisiako gortesauak Zisjordaniara iritsi zirenekoa eta, besteko, Kuomintang Txinako gerra zibila galdu ondoren Taiwanen kokatu zenekoa (ezaguna da geroztik uharte hartako gizartearen aurka hamarkadatan erabilitako errepresio erukigabea): ikus Jamil Hilal eta Mushtaq Husain Khan, 'State Formation under the PNA', in Mushtaq Husain Khan (ed.), *State Formation in Palestine: Visibility and Governance During a Social Transformation*, Londres 2004, 93.

33 Xehetasunetarako, ikus Gal Luft, 'The Palestinian Security Services: Between Police and Army', *Middle East Review of International Affairs*, 1999ko ekaina, 47-63; Rex Brynen, 'Palestine: Building Neither Peace Nor State', in Charles Call eta Vanessa Wyeth (ed.), *Building States to Build Peace*, Boulder (AEB) 2008, 228-229; Yezid Sayigh, *Policing the People, Building the State: Authoritarian Transformation in the West Bank and Gaza*, Carnegie Middle East Centre, 2011ko otsaila, 13.

patzailea zelatatzeko, hura haren ahalmenetik kanpo baitago, herkideak barrandatzeko baizik.

Errepresioa kooptazioz apaindua da. Estatu errentista guztietan bezala, klientelismoa —maskaratu nahiz ukatua— funtsezkoa da sistemarako, bereziki segurtasun-sarean bertan.³⁴ Familien bosten bat inguruk erregimenak banatutako lan edo mesedeei esker ateratzen du bizimodua. Ustelkeriak administrazioko maila guztiak blaitzen ditu, hasi presidentetzako edo ministerioetako dirutzen erabilera okerretatik eta buka kaleko eroskeria txikietan. Nazioarteko Diru Funtsaren txostenen arabera, 1995etik 2000ra bitartean, ia mila milioi dolar sakelaratu zituzten Arafatek eta haren gertukoek, Israelen zuzeneko eta isileko oniritziz.³⁵ Monopolio-kontratuak eta merkataritza-pribilegioak eskaintzen zaizkie atzerritarrei, funtzionarioek beren partila ateratzen dutela. Atzerriko funtsen gaineko bitsetan, GKEak kutzazain bihurtu dira haien arduradunentzat, dena libre. Erabat zabaldua daude Al-Fatahko mafien babes- eta estortsio-sareak.³⁶ Justiziaren izena poliziarena baino are zikinagoa da. Ramallah inguruko txaletetan burokrata eta negozio-gizonen kasta bat bizi da, lapurretaz edo kontrabandoz aberastua (baita Egiptotik kontrabandoan ekarritako zementuarekin ere, zeina Israelentzat Banaketa Horma eraikitzeke erabilia baita), puxanta, langile ezeduki eta langabeen

34 Errentismo politikoa eta haren jardunbidea (Gazako epigrama garratz honetan laburbildua: «Guraso Funtsatzaileak ditugu, eta ez Guraso Fundatzaileak») zertan diren jakiteko, ikus Nubar Hovsepian, *Palestinian State Formation: Education and the Construction of National Identity*, Newcastle 2008, 49-50, 64-83, 189.

35 NDF, *West Bank and Gaza: Economic Performance and Reform under Conflict Conditions*, 2003, 91.

36 Ikus Khan (ed.), *State Formation in Palestine*, 98-108, 180-183, 201, 230-232, egileek ekonomia-garapenerako ertzak bilatzen dituzte prestuki nahas-mahas horretan.

paisaia baten gainetik, Oslok mugaz gaindiko lanak eten baitzuten. Bigarren Intifada hasi zenerako, Lurralde Okupatueta batez besteko diru-sarrerak bi bosten apalduak ziren, eta pobreen kopurua hiru aldiz handiagoa zen.³⁷ 2001eko matxinada, ordukoan bonba suizidak tarteko, emantzipaziorako asmoak zertaratuak ziren ikusteak eragindako frustrazioaren eta etsipenaren eztanda bat izan zen.

1

2002an, Defentsa Murru operazioak, Lurralde Okupatueta israeldarren inbasioak, erauzi egin zuen erresistentzia kanpaleku eta herrietatik, tokiko azpiegiturak suntsitu zituen, eta Arafat bere bunkerrean sarrarazi zuen operazioak iraun bitartean. Palestinako Aginte Nazionalaren segurtasun-indarrek ia ez zuten zirkinik egin, Israelgo Armadak Judean eta Samarian barrena oldarrean aurrera egin ahala. Arafat, gai ez zela Israelek berarentzat moldaturiko papera betetzeko edo haren kontra egiteko, hil egin zen bi urte geroago. Kanpoko agintearen tresna izandako asko bezala, zeinek erabiltzaileak erabiltzea pentsatua baitzuten, paretik kendu zuten.³⁸ Haren ondorengoaren lehen ekintza bigarren Intifada ofizialki amaitutzat jotzea izan zen. Zisjordanian segurtasuna ezarri ondoren, 2005ean Sharon-ek aire zabaleko presondegi bihurtu zuen Gaza, kolono juduen talde ñimiñoa ebakuatuz

37 Neve Gordon, *Israel's Occupation*, Berkeley-Los Angeles 2008, 220.

38 Ghada Karmi-k, inola ere ez asmo makurreko lekukoa bera, zera ondorioztatu zuen kopetillun: «Israelen goi-mahaitik eroritako apurrak onartzeko irrika itxuragabea erakusten zuen», sinetsirik «palestinarren helburuak lortzeko modu bakarra zela israeldarrak limurtzea prozesu batera bultzatzeko, zeinak, Israelek nahi ala ez, palestinaren estatu bat ekarriko baitzuen ororen buruan», eta «azkenean bere inozokeria ordaindu behar izan zuen»: *Married to Another Man: Israel's Dilemma in Palestine*, Londres 2007, 144.

eta Israelgo Armada zerrendaren inguruan hedatuz; mugimendu hori, haren aholkulari Dov Weisglass-ek azaldu zuenez, «palestinarrekin prozesu politikorik izango ez zela segurtatzeko aski formol emateko» diseinatu zen, Bide Orriak horretarako aukera jaso arren (Osloko Akordioen azken klon estatubatuarra).³⁹ Eta halaxe gertatuko zen. Mendebalaren zoritxarrerako, azkenean —hamarkada baten buruan— 2006an palestinar parlamenturako hauteskundeak antolatu zirenean, Al-Fataharen ustelkeriaren eta mendetasunaren sunda gehiegizkoa suertatu zen boto-emaileentzat. Hamasek lortu zituen eserleku gehienak, neurri batean Israelen aurka zintzoagoa zelako, baina batik bat alderdi garbiagoa zelako eta gizarte-laguntzako izen hobea zeukalako biztanleriaren aurrean. Mendebalak zigorrak ezarri zizkion ondotiko gobernuari, eta, Mendebalak akuilaturik, Abbas-ek kolpe bat antolatu zuen boterea Al-Fatahri bueltatzeko. Gertatzeko zenari adi, Hamasek jo zuen lehenbizi kolpea: Al-Fatah Gazatik kanporatu zuen 2007ko udan, eta Zisjordaniaren kontrola Abbasen esku utzi zuen. Emaileen Konferentzia bat antolatu zen Parisen, Al-Fatah Zisjordanian gotortzeko, eta inoiz ez bezalako diru-zaparrada euro-amerikar bat erori zen Ramallahn. *Pro forma* bake-prozesuaren martingalak bere horretan segi zezakeen, Washingtongo eta Bruselako zuzentasun ideologikoari begira baino ez bazen ere —ezein palestinar agintek ez baitzeukan eskuduntza eraginkorrik bi lurraldeetan—.

Abbasek ordutik epemugarik gabe luzatu du bere agintaldia. Haren polizia Shin Bet-ekin elkar hartuta segitzen du lanean, Zisjordanian herri-borrokak makurrarazteko, Oslon hezur-mamitutako

39 Haaretz, 2004ko urriak 8.

Arafaten sistema «presati»an baino bortitzago.⁴⁰ Hala azalez nola mamiz, haren gobernuak eginahalak eta zazpi egin ditu estatubatuarren nahiak betetzeko. AEBren laguntzaz, Palestinako Aginte Nazionalak izen bakarreko gehiengoko hauteskunde-sistema bat ezarri zuen, ordezkaritza Al-Fataharen aldera ekartzeko, 2006an ordaina etorri aurretik. AEB horretan tematurik, Lehen Ministroaren Bulegoa sortu zen Abbasentzat —Washington Arafatengan fidatzen ezenez, bera zaintzapean edukitzeko—, eta, Abbas Arafaten tokiaz jabetu zelarik, Israelgo Armadak aukeraturiko Salam Fayyad-ek bete zuen hutsunea. AEBk hala eskaturik, Israelek Gazan eginiko ekintzekin kritikoa zen txosten bat oztopatzen lagundu zuen Abbasek. Olmert, ofentsibaren arduraduna bera, behin-behinean ustelkeria-akusazioetatik errugabetu zutenean, Abbas arrapaladan joan zen hura zoriontzera.⁴¹

2

Fayyadek, legez kanpo lehen ministro izendaturik eta AEBn goraturik «arabiar gobernantzarako inoizko burutaziorik kitzikagarriena» zela esanda (Thomas Friedman-en hitzetan), garapen teknokratatzko lustre bat eman zien errepresio gero eta gogorragoari eta Israel-ekiko lankidetzaren lotsagabeagoari (2009an bakarrik, elkarlanean 1.200 operazio).⁴² «Palestinar guztientzat,

40 «Presati edo presaka dabiltzanak» (arabieraz, *muharwaluun*) izendapena nola sortu eta zabaldu zen jakiteko, ikus Avi Shlaim, *The Iron Wall: Israel and the Arab World*, New York, 2014ko argitaraldia, 600.

41 Kidetasun pertsonal eta politikoeke-edo bultzaturik: diotenez, haren familiaren ondarea bederatzi zifrakoa da.

42 Xehetasunetarako, ikus Nathan Thrall, 'Our Man in Palestine', *New York Review of Books*, 2010eko urriak 14: «Palestinako Segurtasun Indar Nazionalen buruak esan zien israeldarrei: 'Etsai berbera daukagu', eta palestinar inteligentzia militarren zuzendariak: 'Hamasek erakunde guztiak zaintzapean daukagu, zuek eskatu bezala'».

salbu eta antolamendu horren onuradun den talde-txoarentzat», dio Saree Makdisi-k, «estaturatuaren trebatutako eta israeldarrek armaz hornitutako Abbasen paramilitarrak israeldar indarrekin elkarlanean ikustea, Zisjordaniako iheslari-esparruak arakatzeko okupazioaren aurka litezkeen erresistentzia-iturrien bila —edo bestela israeldarren aginduak zuzenean jasotzen—, erabat groteskoa da».⁴³ AEBko Segurtasun Koordinazioerako Bulego Bereziaren babespean, hiru izarreko estaturatuar jeneral baten gidaritzapean, eskumakil-lan hori lagungarri izan zen Israelgo Armadak bere indarrak libra zitzaizkan Gazako erasorako. Arafaten eta Abbasen gaizkideak, hala nola Munib al-Masri aberats okitua —Zisjordaniako Carlos Slim, zeinaren ondasunek Palestinaren BPGren herena osatzen bide baitute—, oparo loratzen dira; aldiz, Zisjordaniako biztanle gehienak, non bostehundik gora errepide-blokeok kontrolatzen baitute mugimendua eta eguneroko bizitza milaka erregulazio militarren pekoa baitago, beti bezain diru-murri daude. Dozena bat urteren buruan, *per capita* errenta 1999ko mailara baizik ez da bueltatu.⁴⁴

Gazan, bizkitartean, Hamasek, AEBk eta EBk talde terroristatzen jo ondoren erresistentzia armatua baztertzeari eta Israel onartzeari uko egiteagatik, itsasaldeko zerranda bat gobernatzen du, non biztanleria, blokeaturik eta aldizkako inbasioek astindurik, miseria-zulo batean baztertuta baita. Epe laburrean, Israelen aurka Hamasek —ez berak bakarrik— jaurtitako suziri elkorren aurrean Israelgo Armadak hartutako mende-ku neurrigabeek Hamas zutik laga dute, eta haren itzal

43 Saree Makdisi, *Palestine Inside Out: An Everyday Occupation*, New York 2010, 311.

44 «Hein handi batean laguntza birziklatzeari zor zaio, produktzorako ahalmen erreal baten garapenari baino gehiago»: Economist Intelligence Unit (txostena), *Palestinian Territories*, 2015eko apirilak 25, 13.

aberkoia hauspotu. Hala ere, inbasio bakoitzak, biztanleriaren bizitza baleko mailetan atxikitzeko haren gaitasuna higaturik, esku politiko gogorrago bat behar izan du herritarren babes txikiagoa berdintzeko, eta, hala, Hamasek Al-Fatahren jokamoldeetara hurbildu behar izan du.⁴⁵ Zerrenda osoa airez, itsasoz nahiz lurrez zelatatuz, eta uraren, petrolioaren eta argindarraren hornikuntza kontrolatuz, Israel jaun eta jabe da, okupaziorik gabe. Sisi diktadoreak Sinairako tunelak itxiz gerotik, Hamas zokoratuta zegoen, tunelok mundurako irteera bakarra baitziren. Handik aurrera, kanpoko zuzendaritza, Siriatik Qatarra aldatua, iradokitzen hasi zen Mendebalak Palestinarako ezarritako irizpideetara gerturatzen ari zela, ordura arte horien aurka agertu arren. Horrenbestez, bidea irekita zegoen mugimendu nazionala nominalki bateratzeko itun batean, zeinak Al-Fatahri modua emango baitzion, teoriarik, bi lurraldeetan eskumena izango zuen gobernu bat osatzeko, ordainetan Hamasek Gazan zituen 40.000 funtzionarioei soldatak pagatzeko diru-funtsak ematearen eta legegintzaldi berri baterako hauteskunde libreak deitzeko promesa egitearen truke.⁴⁶ Gaurdaino promesok, bata zein bestea, ez dira bete, eta Hamas Mendebalaren enbargoan dago oraindik.

3

Anartean, Sionen azalera etengabe handitu da. Osloko Akordioen bezperan, 1991n, 95.000 kolono

45 Iritzi neurritsu baterako, ikus Yezid Sayigh, 'We Serve the People': *Hamis Policing in Gaza*, Brandeis-ko Unibertsitatea, Crown Centre for Middle East Studies, 5. zk., 2011ko apirila, 106-117.

46 Itunaren testuinguruaren eta emailtzaren analisi PANzale bat hemen: Hussein Ibish, 'Indispensable but Elusive: Palestinian National Reunification', *Middle East Policy*, 2014ko udazkena, 31-46; irakurketa kritiko baterako, ikus Nathan Thrall, 'Hamis's Chances', *London Review of Books*, 2014ko abuztuak 21.

judu inguru zeuden Zisjordanian. Hogeï urte geroago, 350.000 baziren. Israelek Ekialdeko Jerusalem irabazi ondoren, soilik 9.000 judu bizi ziren han. Gaur egun 150.000 baino gehiago dira, beharbada 200.000.⁴⁷ Orotara, milioi erdi bat judu baino gehiago bizi dira gaur egun Lurralde Okupatueta. Haien kokapena estatuak berariaz sustatutako egitasmo bat izan da, kokaguneen emana 28 mila miloi dolarreraino antolatuz, finantzatuz eta babestuz.⁴⁸ Oslotik aurrera, haien hazkunde-tasa Israelgo bertako biztanleriarenaren halako bi baino handiagoa izan da. Ustea bestelakoa izan arren, Osloko Akordioetan ez zegoen horietarako ezelako debekurik; bake-prozesuan badira legezko alderdi batzuk, zeinen funtsak, hastetik beretik, akordioen adierazgarririk onenak baitira.

Diseinuari dagokionez, Ekialdeko Jerusalemgo eta Zisjordaniako kolonizazio-ereduak bi dira. Israelek anexionatu egin zuen lehena 1967an, eta, harrezkero, hiri bateratua estatuko hiriburua izan da. Gailentasun handiagoak dentsitate handiagoa dakar. Gaur egun, Ekialdeko Jerusalemen, auzo juduzko marketeria-lan batek inguratzen ditu palestinarrak, haiek Zisjordanian bereizten dituen. 2014az geroztik, oinarrizko lege batek xedatzen du Israelgo Parlamentuko (Knesset-eko) bi herenen aldeko botoa behar dela Israelek edozein lur lagatzeko, edo, bestela, erreferendum bat antolatu behar dela eta gutxienik bi hereneko gehien-go bat lortu. Horrenbestez, Ekialdeko Jerusalem anexiona bi aldiz lotuta dago. Zisjordanian, non proportzioak ez baitira hain aldekoak, lehentasuna kontrol estrategikoa da, eta ez horrenbeste lurralde-heda-

47 Colin Shindler, *A History of Modern Israel*, Cambridge 2013, 393.

48 Paul Rivlin, *The Israeli Economy from the Foundation of the State through the 21st Century*, Cambridge 2011, 149.

pena. Han, kokaguneez ez dute «Judea eta Samaria» deiturikoaren % 5 baino gehiago hartzen, eta, halere, azaleraren bi bostenen gainean dute udal-eskumena. Autobide-sare batek lotzen ditu Israelgo hiriekin, palestinar biziguneez apartatuaz batera, eta zerga-hobariak eta etxebizitzarako laguntzak dauzkate, bai eta lehentasunezko ur-hornidura ere.⁴⁹ Israelgo Armadak babesten ditu militarki, zeinak oraindik ere Zisjordaniako lurraldearen % 60 administratzen baitu zuzenean, gainerako lurralde gehiena Banaketa Horma batek bereizten duela Israeldik.⁵⁰ Hura eraiki zenetik, Zisjordaniatik egindako eraso suiziden kopurua amildu egin da. Okupazioaren berrogeita hamargarren urteurrena gerturatu ahala, estatu juduaren aurreko bizitzaren halako bi baino gehiago denboraz, *kokagune* hitza esanahi berezi bat hartzen ari da.

4

Mende berrian, Israelek aurrera egin du. Sobietar Batasunetik iritsitako milioi bat etorkinek biziberritu egin dute ekonomia; gehienak hezkuntza- eta gaitasun-maila handikoak dira, gerra ostean iritsitako askenaziak ez bezala —erdiak profesionalak dira: irakasle, mediku, zientzialari, musikari, kazetari—. ⁵¹ Bigarren Intifada zanpatuz geroztik, hazkunde-tasa handiagoak agertu ditu ELGako bere parekoen aldean. Herrialdearen historiako ekonomia-hazkunde eten-

49 Bernard Wasserstein, *Israelis and Palestinians: Why Do They Fight? Can They Stop?*, New Haven 2008, 92.

50 Harresiari eta Jordan Harana ixten duen «segurtasun-perimetro»ari buruzko analisi baterako, ikus Jan de Jong-ek lan honetan eginiko ekarpena: Mahdi Abdul Hadi (ed.), *Palestinian-Israeli Impasse: Exploring Alternative Solutions to the Palestine-Israel Conflict*, Jerusalem 2005, 329-333.

51 Howard Sachar, *A History of Israel from the Rise of Zionism to Our Time*, New York 2007, 1081.

gabeko aldirik luzeenaren ondoren, 2003tik 2007ra, Israelek Europa mendebaldeko eta Ipar Amerikako edozein ekonomiak baino hobeto heldu zion 2008ko krisiari, eta ordutik aurrera ere goitik segitu du. Mundu osoko zientzialari- eta ingeniari-proporziorik handiena izanik, AEBkoa edo Japoniakoa halako bi,⁵² Israel gaur egun arma teknologikoen esportatzaileetan laugarrena da, droneetan eta zaintzan puntaren puntan. IKTen sektoreak esportazioaren aldeko apustua gidatu du, armagintza eta botikagintza oso atzean ez direla, eta horiek —turismoaren goraldiarekin batera— lagungarri izan dira diru-kontuak positiboan mantentzeko. Herrialdeak ez dauka kanpo-zorrik, eta hamar urtez atzerriko aktiboen superabit garbia izan du. Herrialde barruko higiezin, etxegintzaren eta txikizkako merkataritzaren boomarekin batera, inbertsio-olde bat iritsi da atzeritik, batik bat Estatu Batuetatik, besteak beste Intel-ek eta Microsoft-ek Amerikatik kanpo eginiko lehenbiziko I+G operazioak erakarrit.⁵³ Ugari dira arrisku-kapitaleko, errenta aldakor pribatuko eta kudeaketa alternatiboko funtsak. Negoziorako «animalia-espirtua» areago hauspotuz, energia-oparaldi bat eskura daukate, itsasoko gas-hobien ustiapenari esker. Ekologisten erresistentziak oraingoz eskisto-olioa bilatzeko zulaketak geldiarazi dituen arren, herrialdeak erreserba naroak dauzka, eta petrolio-esportatzaile ere bihur liteke. Estatistikoki, Israel, 2014an *per capita* errenta 37.000 dolar izanik, gaur egun aberatsagoa da Italia edo Espainia baino.

Sozialki, arrakasta ekonomiko hori inoiz baino okerrago banatuta dago, zeren laurogeietako jaidura neoliberalari —1985eko egonkortasun-plana mugarri

52 Economist Intelligence Unit, *Country Profile 2008: Israel*, 12.

53 Zenbakien berri izateko, ikus Rivlin, *The Israeli Economy*, 88-93.

izan zen— bulkada are erradikalago bat eman baitzaio. 2003ko aurrekontu-legean, Likud alderdiaren eta laboristen arteko koalizioak enpresentzako zergak moztu zituen, gobernuko langileak kanporatu, gizarte-laguntzak eta sektore publikorako diruak murriztu, estatuaren enpresak pribatizatu eta finantza-merkatuak desregularizatu. Bi urte geroago, Israelgo Bankua Stanley Fischer-en pekorra jarri du —1985eko shock-terapiarako estatubatuar aholkularia, NDFko zuzendari izandakoa eta egun Erreserba Federalaren zuzendariordea—, herrialdea ekonomia diziplinatuaren nazioarteko erakusgarri bilakatzeraino. 1984tik 2008ra bitartean, gastu publikoa, BPGrekiko proportzioan, % 40raino apaldu zen, eta batez besteko soldatak ELGAko rankingaren atzealdean geratu dira katigatuta.⁵⁴ Burtsako baloreak eta etxebizitzaren prezioa izugarri emendatu ziren; aldiz, osasun-gastuak txikiagotu, eta biztanleriaren bosten bat pobreziaren lerrotik behera geratu zen. Orobat, teknologiako *start-up*en distiraz eta esportazio-markez landa, ekonomiako sektore tradizionalagoetan kontuak ez daude hain ondo (lanpostuen erdiak dituzte), eta produktibitatea apala da oraindik. Sektore horietan, bigarren Intifadaz geroztik, langile etorkinek hartu dute Lurralde Okupatuetak eskulan merkearen tokia; etorkinok, legez nahiz legez kanpo, Thailandiatik, Erromaniatik, Txinatik, Filipinetatik eta beste leku batzuetatik etorriak dira, eta esplotazio beldurgarria jasaten dute ezkutuko ekonomian, zeina beste herrialde garatu batzuetan baino bi aldiz handiagoa baita. Israelgo bigarren mailako arabiar biztanleen artean —biztanleriaren % 20

54 Rivlin, *The Israeli Economy*, 61; 'The Next Generation: A Special Report on Israel', *Economist*, 2008ko apirilak 5, 8; Taub Centre, *State of the Nation Report 2014: Society, Economy and Policy in Israel*, 194-195.

inguru—, ordea, langabezia endemikoki altua da.⁵⁵ Hazkunde-eredu horren beste muturrean, aberastasuna handi-mandi aberastu berri batzuen eskuetan pilatzen da: Israelgo hamar konglomeraturik handienek baloreen merkatuaren herena kontrolatzen dute, Mendebaleko ezein burtsatan ez bezala.

5

Politikaz den bezainbatean, 1970eko hamarkadaren amaiera aldean laboristei boterearen kontrola lehen aldiz kendu eta gero, sionismoaren adar errebisionistak sendotu egin du bere hegemonia. Bi joeren arteko aurrez aurreko talka, sarri gobernukide izan direnez, oso bakanetan gertatu den arren, epe luzera nabarmen aldatu da bakoitzak mobiliza ditzakeen indarren arteko korrelazioa. Menahem Begin agintera iritsi zenetik, azken lau hamarkadetan, Likud hemezortzi urte luzez egon da boterean, Likud edo haren transfugak buru izandako alderdi bien arteko koalizioak hamabi urtez, eta laboristak seiz. Bitarte horretan, Netanyahu, Likudeko oraingo burua, hiru hauteskunde segidan irabazi dituen politikari bakarra izan da, eta, oraingo agintaldia osatzen badu, urtebete baino ez zaio falta-ko Ben-Gurionek Israelgo lehen ministro gisa egindako denbora berdintzeko. Haren goraldia, haatik, gehiago izan da Alderdi Laboristaren hondamenaren ondorio,

55 Etorकिनен eskulanera aldatzeaz jakiteko, ikus Gershon Shafir eta Yoav Peled, *Being Israeli: The Dynamics of Multiple Citizenship*, Cambridge 2002, 323-329. Adriana Kemp eta Rebeca Raijman-en arabera, «Israel dugu atzerriko eskulanarekiko mendetasunik handiena duten herrialdeen artean»: ikus egile horien 'Bringing in State Regulations, Private Brokers and Local Employers: A Meso-Level Analysis of Labour Trafficking in Israel', *International Migration Review*, 2014ko udazkena, 604-642. 1990eko hamarkadaz geroztik, arabiar biztanleriaren pobrezia-maila hazi egin da, familien erdiak hartzeraino: Ilan Peleg eta Dov Waxman, *Israel's Palestinians: The Conflict Within*, Cambridge 2011, 35.

beraren merezimendu baino. 2003ko aurrekontuen egile gisa lerratze neoliberalaren pertsonifikazioa da, eta, herrialdearen historiako liderrik amerikartuena izanik, badauka arestiko ekonomia-hazkundearen lorpena bere buruari egozte. Hala eta guztiz ere, errealtate horrek gizarte-haserrea zabal piztu duenez —klase ertainak manifestazioak egin ditu etxebizitzaren kostuaren eta osasun-arreta desorekatuaren aurka—, ez da aktibo argi bat. Are pisutsuagoa izan da segurtasunaren inguruko jarrera are zorrotzago bat, zeina ikuspegi errebisionista baten koherentzia handiagoaren emaitza baita. Edozein hauteskundetan, horixe izan ohi da eremurik minberena, hor nahimen politikoa gailendu baitakieke ekonomiako duda-mudei. Horretan, labo-ristak imitaziotik itzurbidera ibili dira aldaroka, lider ahulen erreskada baten esanetara, eta boz guztiak galdu dituzte, Netanyahuren esku gogorraren ziurtasunaren aurrean. Azkeneko eta ez hutsalago, Likudek maizago asmatu du alderdi erlijiosoak gobernuetara biltzen; hori ere sionismoaren beraren bertsioaren bistako ekarpena da: etxe-bazterrean sozialista zaharren erlikiarik ez, eta solteago dabilta erlijioa pragmatikoki erabiltzen helburu politikoak lortzeko.

Israelen, sistema politikoaren egonkortasuna sionismoaren eta judaismoaren arteko mendetasunean ardaztu da. Egunerokoan, klerikalismo ilunaren eta sekularismo freskoaren arteko sinbiosi xelebrea da horren ondorio kulturala: ortodoxoen pribilegio eta tabuek marratzen dute gizarte zibila, zeina edozein eskandinaviar gizarte gogo-zabal bezain desinhibitua baita, haien artean zinezko gatazkarik ez dela. Historikoki, paradoxa horrek bi alde dauzka: negatiboan, judaismoarekiko kritika falta izan zen, ilustrazio erradikalak kristautasunari egindakoaren parekoa, behin

ghettoaren inguruko langak eroriz gero pentsalari judu emantzipatuek eztabaida sekularrekin bat egin zutelarik mundu oraindik kristauan, erlijioa bera aintzat hartu gabe;⁵⁶ eta positiboan, sionismo sekularrak erakargarri erlijioso bat behar zuen hizkuntzaren edo jatorriaren aldetik lotura komunik ez zuen jende bat elkartzeko eta Agindutako Lurraldearen bere aldarrikapena oinarri teologiko batez janzteko. Horren emaitza den hibrido kleriko-sekularra —mugaldeko edozein arrago-gizarteren ezaugarri orokorrek erabat baldintzatua, beti matxismo filistiarra eta denik eta herri-kulturarik mendrena sortzeko prest dagoena— motelgarri da bizitza intelektualerako, baita iragan judu europarreko oihartzun kritikoak sekula erabat isildu ezin izan diren arren. Hala ere, egonkortze-mekanismo bat izan da bizitza politikoan, forma itxuraz zatikatu baina funtsean finkatuak bateratuz.

Halako egonkortasunak, noski, kanpoko arriskuaren kontrako *batasun santurako jaidura iraunkor*rean ditu zuztarrak sakonenak. Ezerk ez du estuago elkartzen komunitate bat nola eskuratutakoa galtzearen beldurrak. Arabiar munduak, otzanduta egonda ere, oraindik ez ditu onetsi 1948ko eta 1967ko konkistak, eta palestinaren haserrea, indargea izanda ere, oraindik ez da itzali. Inguru horretatik etor litekeen mendekuaren ondoan, barneko desadostasunak hutsalak dira. Egerra horretan, bizitza publikoaren nonahiko ustelkeriak, Europar Batasuneko edo AEBko maila altuen gainetik egonagatik, sumina baino gehiago axolagabetasuna eragiten du. Korporazioen munduan zabal-zabal dabil, non dirudun handiak errusiar oligarken pareko

56 Israel Shahak izan zen beranduko salbuespen nabarmengarri bat: ikus *Jewish History, Jewish Religion: The Weight of Three Thousand Years*, Londres 2008.

israeldarrak baitira, eta kasik espektro politiko osora hedatu da. Pertsonaia publiko nagusi ia guztiak sartuta egon dira eskandalu ekonomiko edo sexualen batean, bata bestearen atzetik: hasi Rabin, Peres, Sharon, Netanyahu edo Ramon-ekin eta buka Olmert edo Katsav-ekin (eroskeriaz akusaturiko lehen ministroa bata eta bortxaketaz akusaturiko presidentea bestea).⁵⁷ Gaur egungo klase politikoarenganako mespretxua ez da, guztiarekin ere, mehatxu berarentzat. Irudi lezake biztanleen errespetua hainbestearino galdu duen sistema politiko batek aldaketarako puntuan egon behar lukeela, baina segurtasunak eskatzen du ezein ikuspegi alternatibok hauteskundeetan tarterik ez edukitzea, eta, beraz, ez dago kolokan. Ia denak juduen xangrin eta eskubideetan bat datozenez, boto-emaileek badaukate haien agintarien okertxoez fuitzea, denek jokabide bera baitute azken batean. Seguruenik ez da inon izango beste kultura politikorik hainbeste zinizismo arbuigarri hainbeste konformismo erreflexurekin uztartzen duenik.

6

Aldi horretan, nazioarteko aldaketak ez dira hain mesedegarri gertatu Israelentzat. Estatu Batuetan makaltzen ari da estatu judua kritikatzeko edo Washingtingo lobby sionista aipatzeko tabua, nahiz mendearen hasieran oraindik indartsua zen.⁵⁸ Lobby

57 Gaur egungo klase politikoarekiko atsekabearen adierazpen pipertsu baterako, ikus Bernard Wasserstein, 'Israel in Winter', *The National Interest*, 2015eko martxo-apirila, 48-56.

58 2006an, azterlan garrantzitsu batek oraindik «burugabe»tzat zuen pentsatzea estatubatuar juduek, soilik sei milioi lagun izanik, baldintzatu zezaketela berrehun eta laurogei milioi biztanleko nazio baten politika, eta adierazten zuen bi herrialdeen arteko harreman berezia —«gardena, informala, orotarikoa, elkarrekikoa, eskusiboa, fidagarria eta iraunkorra»— ohiko kultura politiko demokratikoaren balioetan oinarrituta

horri buruzko lehenbiziko azterketa kritiko serioa, John Mearsheimer eta Stephen Walt-ek egingina eta 2006an plazaratua, mugarri bat izan zen. Judu-komunitatean bertan ere, bereizketak sortu dira: batetik, laboristen aldeko liberalak (J-Street), eta, bestetik, Likuden zale diren kontserbadoreak (AIPAC), oraindik ere erakunderik indartsuena alde handiz. Estatu Batuetako judu-belaunaldi gazteen artean, gainerako pertsonen artean bezala, erlijio-sinesmenak gainbeheran daude. Israelen aldeko sukarraren apaltzeak, itxura batean, axolagabetasun gero eta handiagoa ekarri du, eta ez hainbeste Agindutako Lurraldean gertatzen ari denarekiko antsietatea edo erresumina.⁵⁹ Judu-sentimenduaren bilakaera hori iritzi orokorraren kezka-agerraldietan islatzen da, halako moldez non Tel Aviven ekintza jakin batzuk inoiz behin kritikatzeari, kritika hori zeharkakoa izan arren, gero eta onargarriagoa baita hedabideetan.

Diplomazia mailan, Etxe Zuria ofizialki oraindik engaiatua dago nolako edo halako palestinar estatu baten sorrerarekin, eta, adibidez, Osloko Akordioetatik aurrera, jendaurrean Zisjordaniako kokaguneen hedapena gaitzetsi du, baina bere aliatuarekiko edozein mugimendu kritiko eragozten du NBEn. Obamaren administrazioak ez du funtsezko aldaketarik egin

zegoela: Elizabeth Stephens, *US Policy Towards Israel*, Brighton 2006, 7-8, 253, 255-256. Aritmetika horren xalokeria laster frogatuko zen, eta ez bakarrik tokiko komunitateko kideen aldetik. Peter Beinart loialistak zera nabarmendu zuen: «Azken bi hamarkadetan, juduak izan dira estatu-idazkari, altxoraren idazkari, segurtasun nazionalako aholkulari, Parlamentuko Gehiengoaren buru eta Etxe Zuriko Kabinetearen buru, eta Harvarden, Yalen eta Princetonen ere presidente izan dira. *New York Times*ko azken sei editoreetatik lau izan dira juduak. Auzitegi Gorenean, gaur egun, juduak protestanteei nagusitzen zaizkie, 3-0», eta orobat hauxe erantsi zuen: «Pribatuan, estatubatuar juduak loriatzen dira juduen botereaz. Jendaurrean, ordea, saiatzeko gara horretaz ez aritzen, mito antisemitik elikatu beldurrez»: *The Crisis of Zionism*, New York 2012, 5.

59. Ikus Beinart-en azalpena eta kexua hemen: *The Crisis of Zionism*, 169-172.

horri dagokionez, lantzean behingo moldaketa erreto-rikoez landa. Hala eta guztiz ere, 1956tik aurrenekoz, talka politiko garrantzitsu bat izan da Estatu Batuen eta Israelen artean, ez Palestinaren inguruan, Iranen inguruan baizik. Biak ala biak deliberatuak dira Teherani ahalmen nuklearra eskuratzea eragoztera, horrek Israeli eskualdean arma nuklearren monopolioa kenduko lioke eta. AEB horretan tematu eta gero, 2006an NBEk zigor mingarriak ezarri zizkion Irani halako asmoak oro alboratzera behartzeko, eta, horien presiopean, Teheran 2014rako hasia zen zigorrak altxatzeko baldintza eske. 2015eko udaberrian, Estatu Batuetako eta Israelgo erregimenak liskartu ziren Iranek Washingtonekin lorturiko akordioa zela eta, zeina Londresek, Berlinek, Parisek, Moskuk eta Beijingek ere berretsia baitzuten. Obamak nabarmendu zuen zigorrek betea zutela beren egitekoa, Teheranen disuasio-ahalmena eraisteko prest zegoen gobernu bat agintera iritsita; Netanyahu, ordea, zalantzan jartzen zuen zenbateraino amore emana zuten, eta zigor gehiago eskatzen zituen, irandarrei beren asmoak osoki eta ezbairik gabe bertan behera utzarazteko... Bata bestearen barne-politikan esku hartzeagatik sututako eztabaida batean, Netanyahu errepublikanoek kontrolatutako kongresuari eskatu zion Obama presidente demokratari aurre egiteko; Obamak, bere aldetik, ez zuen ezkututzen Netanyahu paretik kentzeko nahia, eta hark hauteskundeak berriro irabazi izana deitoratu zuen.

Gatazka horretan, Irango presidenteari bat-batean barne-gatazkarik sortu ezean, estatubatuarraren nahia nagusituko da ezbairik gabe. Likuden susmo txarrak ez dira aski Islamiar Errepublika nazioarteko komunitatearen gerizpera berriz ekartzeko interes goragoaren aldean, Estatu Batuek hura ulertzen

eta gidatzen duten gisan. Tel Aviv aldetara egokituko da, eta liskarra atzendu egingo da. Tira-birak, ordea, laxatu egin ditu bi estatuen arteko lotura politikoak, eta seguruenik holaxe segituko dute, nahiz bien arteko harreman bereziaren oinarri ekonomiko eta militar sendoak iraungo duen. Ez da bakarrik AEBk ofizialki urtean hiru mila miloi dolar ematen dizkiola Israeli —egiaz, beharbada lau mila milioitik gora— laguntza molde baten baino gehiagoren bidez, eta irabazpide handiko finantza-pribilegio sorta bat.⁶⁰ Horretaz gainera, 2008tik aurrera, legez, «abantaila militar kualitatiboa» (AMK) eskaini behar dio Israeli Ekialde Hurbilean diren edo litezkeen beste indarren gainetik. 2011ko udazkenean, Obamaren Gai Politiko-Militarretarako estatu-idazkariordeak xeheki azaldu du AMK funtsezkoa dela eta gaur egungo gobernuaren asmoa dela ez bakarrik hura mantentzea baizik eta baita handitzea ere.⁶¹

7

Gerra-egoerako laguntzaren bermea berezkoa eta ukiezina da. Israelek Zisjordanian zernahi egiteko askatasuna edukitzea besterik da. Horri dagokionez,

60 Israelentzako 2007tik aurrerako zuzeneko eta zeharkako laguntza sail osoen berri izateko, ikus Mearsheimer eta Walt, *The Israel Lobby and us Foreign Policy*, New York 2007, 26-32.

61 «Estatu Batuentzat Israelekiko segurtasun-engaiamenduaren giltzarria izan da Israeli ziurtatzea bere abantaila militar kualitatiboari eusten lagunduko diola. Abantaila horrek izendatzen du Israelen gaitasuna mehatxu militar sinesgarrietatik bere burua defendatzeko eta halakoak azpiratzeko, hura edozein estatutatik, koaliziotatik edo estatu ez den eragiletatik datorrela ere, ahalik eta kalte edo biktima gutxien jasanda», azaldu zuen idazkariordeak. «Obamaren gobernuak harro dago AEBk Israeli emandako segurtasun-laguntza sendoaren ondorengotzari segitu diolako. Izan ere, ondorengotza hori maila berrietara eramaten ari gara, Israelek gure laguntza behar duen aldiro orotariko mehatxuei aurre egiteko». Andrew Shapiro-k Ekialde Hurbileko Politikari buruzko Washington Institutuari eginiko adierazpenak, 2011ko azaroak 4.

*status quo*arekiko kezka hazi egin da Atlantikoaren bi aldeetan, baina ez neurri berdinean. Europako gobernuak aurre egin beharreko murrizketak eta Washingtongoak ez dira berberak. Europar Batasuneko gobernuentzat, AEBrekiko diplomaziazko elkartasun orokorra ezinbestekoa da atzerriko politika arduratsu baterako, eta judeozidioarekiko europar erruduntasunak Israelekiko engaiamendu ideologikoa ziurtatzen du. Hala eta guztiz ere, Europan Estatu Batuetan adinako botere politiko, kultural eta ekonomikoa daukan judu-komunitaterik ez dagoenez, eta jatorri arabiar eta musulmaneko etorkin kopuru askoz handiagoak daudenez, Ekialde Hurbilari buruzko iritzien testuingurua ez dator bat Estatu Batuetako kalkuluekin.

Europako klase politikoan, badira Estatu Batuetakoak bezain sutsuak diren Israelen aldeko jarrerak, herrialdea EBko ohorezko kide gisa tratatzeraino edo Batasunean erabat onartua izateko eskatzeraino. Javier Solana Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkaririk *Haaretz*i adierazi zionez: «Ez dago beste herrialderik Europako kontinentetik kanpo Europar Batasunarekin Israelena bezalako harremana duenik. Israel, zilegi bekit esatea, Europar Batasuneko kide da haren erakundeetako kide izan gabe». Alemaniako sozialdemokraten atzerri-gaietarako eledunarentzat, *de facto* denak *de jure* bilakatu behar luke: «Zinez nahi nuke Israel Europar Batasuneko kide osoa izatea». Espainiako eta Alemaniako zentro-ezkerreko ahots horien oihartzuna Italiako zentro-eskuinera iritsi da, eta Berlusconi —orduko lehen ministroak— kausa bera bultzatu du: «Italiak babestu egingo du Israel EBko kide bilakatzea». Tzipi Livni-k —Israelgo orduko atzerri-ministroak—, bere aldetik, Israel europar proiektuan gero eta gehiago barneratzen ari dela ikusita, zera aldarri-

katuko zuen: «Zerua da muga bakarra».⁶² Era horretako gurariak ez dira, berez, ezohikoak. Turkiarekiko eta Ziprerekiko negoziazioetan, Bruselak okupazio militarri eta garbiketa etnikoari ez ikusiarena egin badie: zer dela eta zapuztu Zisjordaniagatik edo Gazagatik? Giza eskubideak aldeztu Batasunak, eta ez aspal-diko deitorea.

Hala eta guztiz ere, EBk bereari eutsi nahi balio ere eta Israel kideztat onartu, ez legoke horretarako aukerarik. Iritzi publikoa albo batera utz daiteke diziplina ekonomikoa kolokan dagoenean: austeritateak ez du onartzen hautetsontzirik. Palestina beste kontu bat da, aldi berean ez hain esanguratsua baina minberagoa. Klase politikoak, batetik, baditu arazoak urduri egoteko Israelen eguneroko gehiegikerien aurrean etorkinek izan lezaketen erreakzioa dela-eta, baina, gainera, hautesleak eta hedabideak gero eta kritikago agertzen dira halako izugarrikerien aurrean. Defentsa Murru operazioak (Zisjordania, 2002), Berun Urte operazioak (Gaza, 2008-2009) eta Hegi Babesgarri operazioak (Gaza, 2014) iritzi publikoaren bilakaeraren faseak zedarritu dituzte. Alde nabarmenez, herstura eta erdeinua nagusitu dira. Hegi Babesgarriaren aurretik ere, 2012an, BBCren inkesta batek erakutsi zuen Israeli buruz iritzi negatiboa zutela biztanleen % 65ek Frantzian, % 68k Britainia Handian, % 69k Alemanian eta % 74k Espainian. Hegi Babesgarriaren ondoren, gal-

62 Adierazpenon berri izateko, ikus David Cronin, *Europe's Alliance with Israel: Aiding the Occupation*, Londres 2011, 2; Sharon Pardo eta Joel Peters, *Uneasy Neighbours: Israel and the European Union*, Lanham 2010, 75, 69. Urte hartako maiatzean, bere burua «Europar Pertsona Itzaltsuen Talde» [sic] izendatuak, askotariko pertsona errespetagarriek osatua bera, bere ezinegona adierazi zuen Netanyahu berririo hautatua izan zelako, eta Israelen aurka neurri sendoak hartzera dei egin zuen, nahiz eta aurretik txintik esan ez jarduneari zeudelarik. Uste izatekoa zenez, Solana tartean zen.

detutako britainiarren bi herenek Israel erruduntzat jotzen zuten Gazan gerra-krimenak egiteagatik. Maila ofizialean, halako jarrerak ez dute oihartzun handirik. Europako herrialde nagusien artean gobernu bakar batek ere ez zuen babestu nahi izan Berun Urtuari buruzko Nazio Batuen txostena. Alemaniak, Italiak, Herbehereek, Poloniak, Hungariak, Txekiar Errepublikak eta Eslovakiak kontra bozkatu zuten, Estatu Batuekin batera; Frantziak, Britainia Handiak, Espainiak, Suediak, Danimarkak eta Finlandiak abstentziora jo zuten. Guztiarekin ere, litekeena da jarrera ofizialen eta iritzi publikoaren arteko arrakalari hain erraz eutsi ezin izatea.

8

Iritzia, ordea, politikoki eraginkorra izango bada, antolatu beharra dago. Bada zabaldutako bigarren arrakala bat ere. Boikota Desinbertsioa Zigorrek (BDZ) mugimendua da *status quo*aren aurka zinez eraginkorra izan litekeen kanpaina, 2005ean Palestinan abiarazia. Hegoafrikako adibidearen arrastoan, haren helburua da enpresak, unibertsitateak eta beste erakunde batzuk Israel berrogeialdi ekonomikoan jartzera behartzea, harik eta Lurralde Okupatuak desblokeatu eta hango herritarrei eskubide-berdintasuna aitortu arte. Hamar urtez ekintzak egin ondoren, emaitza praktikoa hutsaren hurrengo izan da. Eta hala izan da, partez, jomuga emankorrenak unibertsitateak direlako, bistako arrazoiengatik —deialdi etikoetarako, kultura teoriarik sentiberagoa da kapitala baino—, baina Estatu Batuetakoek baino ez dituzte inbertsio handiak Israelgo ekonomian; Europan, eskuarki, estatuek finantzatzen dituzte. Estatu Batuetako gazteen artean ere hazi da Israelekiko deslilura —30 urtetik behera-

koen erdiek gaitzesten dute Gazaren aurkako azken eraso handia—, eta Estatu Batuetan BDZko aktibistak ausardiaz borrokatu dira desinbertsioaren alde campusetan. Orain artekoan, Ingalaterra Berriko unibertsitate txiki batek bakarrik egin du keinuren bat haien alde-
ra. Europan, boikota —nagusiki akademikoa— eskari nabarmenagoa izan da, baina, balio sinboliko hutseko xedapen gutxi batzuk gorabehera, ez du besterik eman.

Orain arte emaitza materialik izan ez duen arren, Israelek eta haren europar babesleek beldur diote BDZren azpiko ikuspegiari. Bruselak bere bizkarrak zaindu nahi izan ditu eskakizun batzuk eginez —«ezlotesleak, noski»— Lurralde Okupatuetao produktuak jatorri horrekin etiketatzeko. Alemania xedapen horien kontra agertu da, eta oraindik indarrean sartzeko daude. Estrasburgok eta zenbait estatutako parlamentuek alde bozkatu dute Abbasen alegiazko aginte nazionala, «printzipioz», palestinar estatutzat aitortzeko; hala ere, egiaz Suediak baizik ez du egin urrats hori. Israelen defentsa irmoak gero eta amarrutsuagoa dirudenez, EBk AEBk baino gehiago estutu du Tel Aviv Bide Orriari ekin diezaion, etxean lotsagarri ez geratzearren. Ordura arte ildotik aldentzeko saio horiek beratzak eta uzkurak izan diren arren, Israelek ez die ez ikusiarena egiten sionismoarekin hain abegikor ez den europar aldar-
te gero eta nabariago horren arriskuei. Baliteke BDZk garaipen gutxi lortu izana mundu anglosaxoian, baina Israelen halakoekiko izuak itu-ituan jo du. 2011n, Knesseten lege bat aurkeztu zen boikotera dei egiten duen edonor zigortzeko berari kalte-ordainak ezarritzeko eta gizarte-onurak kenduz. Lege-proiektuaren aldeko gehiengo murrizta izan zen, baina haren azpiko larridura zabalagoa da. Gaur egun herrialdeko botere-guneetan dabilen hizkera alarmista erabilita: galtzen

ari ote da Israel legitimazioa atzerrian? Arrisku horren aitzinean, erne ibili beharra dago. *Think-tank* garrantzitsu baten azterketak izenburu hau dakar: *Sueten politiko bat eraikitzen Israelen deslegitimazioaren aurka*.⁶³

9

Diplomatikoki, argi dago desadostasun gehiago ager daitezkeela. Likud agintean dagoen artean, Israel ez da lehen bezain ongiatorria izango. Mendebalean —batik bat European, neurri apalagoan Estatu Batuetan— gertatzen ari den babes-beherakada hori berdintzeko, haatik, finkatu egin da Israelek Ekialde Hurbilean duen posizioa. Bi aldaketak itxuratu dute egoera hori. Alde batetik, ekonomia-hazkunde bizia dela medio, Israelgo estatua lehen baino buruaskiagoa da. 2007tik hona, Washingtonen laguntza ez-militarra apaldu egin da poliki-poliki. Defentsako gastuak BPGren % 7 inguru hartu arren (AEBko mailatik askoz gorago), Israelen kontuetako superabita inbidiagarria da Washingtonentzat, halabeharrez. Presio ekonomiko egi aurre egiteko ahalmena handituaz batera, Israelen inguruko presio estrategikoak laxatu egin dira. Iraken inbasioaren eta Arabiar Udaberriaren ondorioen balantzeak inoizko posiziorik sendoenean utzi du Israel Sei Eguneko Gerraz geroztik. Egipton, Sisiren diktadura aliatu gertuagoa da Mubaraken erregimena baino, eta Gaza erabat giltzapetu du, etxeko Anaia Musulmanen aurkako errepresioaren luzapen gisa. Jordania kide guztiz prestua da orain ere, barneko asaldurik gabekoa. Libanoko hegoaldea Nazio Batuen tropek patrulatzan dute —frantsesak, italiarrak eta espainiarrak buru—, hala glazis bat eskainiz Hezbollahren erasoen

63 Ikus Noura Erakat, 'bds in the usa, 2001–2010', in Audrea Lim (ed.), *The Case for Sanctions*, Londres-New York 2012, 95-97.

kontra. Sirian, Assaden erregimenak, Israelen etsairik amorratuena, ez dauka lehengoaren antzik, AEBren manupekoek armatu eta finantzatutako matxinadek birrindua baitute. Urrutiago, Irakeko iparraldeko estatu kurdu deklaratu gabea aliatu lagunkoia du, eta abegi egiten die Israelgo inteligentzia-agente, aholkulari militar eta negozio-taldeei. Eskualdean, xiien eta sunien arteko gatazka goriak zatikatzen eta tronpatzen ditu fededunak, halako moldez non ez baitago inolako aukerarik fronte bateratu bat osatzeko behinola estatu gurutzatu berriaren estigma zeraman haren kontra (estatubatuarrak hauspotu dituzte gatazkok bata bestearen aurka baliatzeko, Gerra Hotzeko Txina-SESB bereizketan bezala). Iran urrutiko mamarroa da. Arerio komun horren aurrean, Saudi Arabia eta Israel elkar hartuta dabilta gero eta gehiago, eta, horrenbestez, urrutiko etsaiak beste adiskide bat ekarri dio sionismoari. Ekialde Hurbileko panorama, jakina, uste ez bezala iraul liteke. Baina, gaur-gaurkoz, gutxitan bezain seguru dago Israel.

10

Hastetik beretik, inork ez zituen Osloko Akordioak ulertu Edward Said-ek bezain garbi. Hil aurretik, estatu binazional batez hitz egiten hasi zen, ez programa gisa ezpada ideia erregulatzailerik gisa —Palestinan epe luzera bakea lortzeko esperantza bakarra, nahiz epe laburrera utopia iruditu lezakeen—. Orduetik hamarkada eta erdi baino gehiago joan da, eta proposamen beraren aldeko ahotsak, azalpen luzeagoak eta zehatzagoak emanaz, ugalduta egin dira. Gerrarteko aldiari Yishuv-en (1948an desagertua) gutxiengo baten iritzia izandako hori korrante esanguratsua bilakatu da palestinarren iritzietan, eta Israelen ere badu oihartzu-

na. Zisjordaniako eta Ekialdeko Jerusalem kokaguneen hedapenak, Banaketa Hormaren eraikuntzak, Gazaren bakartzeak, Al-Fatahren eta Hamasen arteko banaketak eta Israelgo arabiarren ordezkartzaren hutsaltasunak sinesgarritasuna kendu diote Bide Orriari, lehendik ere txikia bazuen ere. Bigarren Intifada hasi eta hilabete gutxira, estatu bakarreko konponbidearen alde palestinar batek idatzitako lehenbiziko gogoeta zorrotza agertu zen 2001eko abenduaren hastapenetan, hain zuzen, Lama Abu-Odeh-k *Boston Review* aldizkarian argitaratutako artikulu bat —auziari buruzko adierazpenik buruargi eta pipertsuenetako bat—. 2002ko udan pieza indartsu eta argiro politikoago bat jarraiki zitzaion hari, Ghada Karmi-k Libanoko *Al-Adab* egunkarian argitaratua. Hiru urte geroago, liburu-tankerako aurreneko defentsa etorriko zen, *The One-State Solution* [Estatu bakarreko irtenbidea], Virginia Tilley estatubatuar akademikoak idatzia, geroago garatuko zuena Israeldik egindako ezkerreko kritika bati emandako arropostu eraginkor batean.⁶⁴

Harrezkero, eustorma pitzatu egin da. 2006an, Ali Abunimah estatubatuar-palestinarraren *One Country* [Herialde bakarra] iritsi zen, estiloaren graziari eta ikuspegiaren inspirazioari dagokienez Saiden lanetik hurbilen dagoen liburua. 2007an, Joel Kovel-ek nazionalismo juduaren konbentzioei eginiko eraso sutsu bat argitaratu

64 Ikus Yoav Peled, 'Zionist Realities' eta Virginia Tilley, 'The Secular Solution', *NLR* 38, 2006ko martxo-apirila, 21-57. 2003an, Tony Judt-ek inarrosaldi bat eragin zuen Estatu Batuetako juduen zirkuluetan, bere iragan sionistaz arnegaturik Palestinako etorkizun binazionala aldeztu zuelarrik; ez zuen xehetasunik eman, halere, zeren palestinarrei herrialdearen % 22 bueltatzea (kokagune gutxi batzuk kenduta), «irtenbide bidezko eta posiblea», ordurako ez baitzen bideragarria —Osloko Akordioen aldezle sutsua izana zen—: 'Israel: The Alternative', *New York Review of Books*, 2003ko azaroak 2. Beharbada bere ekarpenaren ahulaz jabeturik, Judt ez zen tematu horretan, eta artikulu hori ez zuen jaso bost urte geroago berak osaturiko *Reappraisals* bilduman.

zuen: *Overcoming Zionism: Creating a Single Democratic State in Israel/Palestine* [Sionismoa gainditzen: estatu demokratiko bakarra sortzen Israel/Palestinan]. 2008an, Said-en iloba Saree Makdisi-k Lurralde Okupatueta-ko bizi-baldintzei buruzko orain arteko erreportajerik dokumentatuena eta hunkigarriena ondu zuen, *Palestine Inside Out* [Palestina barrutik kanpora], eta estatu bakarraren aldeko defentsa batekin buru eman zion. 2012an, hilabete gutxiko tartean, israeldarren bi lan eta egile israeldar eta palestinarrak zituen hirugarren bat karrikaratu ziren: Ariella Azoulay eta Adi Ophir-en *The One-State Condition* [Estatu bakarraren izatea], Yehouda Shenhav-en *Beyond the Two-State Solution* [Bi estatuko konponbidetik harago], eta *After Zionism: One State for Israel and Palestine* [Sionismoaren ondoren: Estatu bakarra Israel eta Palestinarentzat], Anthony Loewenstein-ek eta Ahmed Moor-ek editatua. 2013an, Rashid Khalidi-ren *Brokers of Deceit* [Engainuaren bitartekariak] liburuak dei egiten zion Palestinako Aginteari bere burua desegitera, eta estatu bakarrean denentzako eskubide demokratikoen alde borrokatzera; bestalde, Hani Faris-ek editaturiko *The Failure of the Two-State Solution* [Bi estatuko konponbidearen porrota] bildumak estatu bakarraren inguruko gogoeta eta proposamen sortarik osatuena jaso du, hogeit egileren ekarpenekin. Liburu horiei emandako ihardespren kritikoak berehala etorri ziren, bai israeldarren bai palestinarren aldetik. 2009an, Benny Morris-ek *One State, Two States* [Estatu bat, bi estatu] plazaratu zuen; Hussein Ibish-ek *What's Wrong with the One-State Agenda?* [Zer arazo ditu estatu bakarraren proposamenak?]; 2012an, Asher Susser-ek *Israel, Jordan and Palestine: The Two-State Imperative* [Israel, Jordania eta Palestina: Bi estatuen ezinbestea]; 2014an, israeldar eta palestinarrak adituen talde batek

One Land, Two States [Lurralde bat, bi estatu] ondu zuen, suediar baten gidaritzapean. Paisaia intelektual berri bat azaleratzen hasia da, horrenbestez, zeinean Olmertek berak ohartaraz bailezake zer arrisku dakartzan Israelentzat Agindutako Lurrean estatu bakarra izatearen inguruko eztabaida gero eta biziagoak.

Konponbide horren aldeko testuetan, estatuaren forma aldatu egiten da lan batetik bestera: demokrazia unitario bat denentzat eskubide zibil eta politiko berberak aitortzen dituena, federazio binazional bat Belgikaren moldekoa edo, baita ere, kantoietnikoen konfederazio bat. Haatik, proposamen gehienek oinarrian badira iruzkin eta argudio komun batzuk. Zisjordanian zehar, Ekialdeko Jerusalem zeresanik ez, juduen logistika-sarea eta kokagune juduen patroia sakonegi barneratu da atzera-buelta izateko: israeldarren hedapenak Sionen barruan bigarren estatu bat ostatatzeko aukera birrindu du. Osloz geroztik palestinarrei eskainitako bigarren estatuak, inoiz gorpuztuko balitz ere, lehenengoaren mende egon behar luke nahitaez, jarraitutasun geografikorik gabe, biderragarritasunik gabe edo zinezko burujabetza politikoaren aztarnarik gabe: ez litzateke egitura independente bat, Israelen eranskin bat baizik. Nolanahi ere, promesa betetzea betiko atzeratzen ari denez, hobe litzateke joko aldatzea zapaltzaileari eta estatu bakarra eskatzea, non bi herrien artean, bederen, parekotasun demografikoa bailegoke. Borrokarako ikur politiko modura ere, eskubide zibilek —argudio horren arabera— nazioartean tira handiagoa dute askapen nazionalak baino. Israel garaiezina da ekinaldi etnikoen aurrean; zaurgarria, aldiz, presio demokratikoaren aurrean.

11

Joel Kovel-en hitzetan, «bi estatuko konponbidea gehienbat eufemismo bat» da, izendatzen duena «estatu juduaren handitze etengabea, lur puska gero eta txikiago batean dagoen “beste estatu” ezdeus samar baten ondoan». ⁶⁵ Hala bada, zer esan genezake estatu bakarreko konponbidearen ideiaz, gaur arteko proposamen-zirriborroak kontuan izanda? Palestinarrrekiko elkartasunaren sendotasunari eta bi estatuko konponbideak egiaz zer dakarren ikusteko argitasunari dagokienez, aurrerabide kritiko bat seinalatzen du estatu sionistaren aurkako oposizioaren gordian, bai bi herrialdeetan, bai nazioartean. Erreakzio ofiziala da neurgailurik onena. Duela hamar urte baino gehiago, Palestinako Aginte Nazionalako funtzionario batek proposamenarekiko interes-aztarnaren bat —taktikoki bazen ere— agertu zuelarik, Powell estatu-idazkariak iragarri zuen bi estatuko konponbiderako Bide Orria «aukera bat eta bakarra» zela. ⁶⁶ Israeldarren hasierako erantzun xelebrea zera izan zen, «bazeukatela orobat eskatzea palestinar estatu bat Ilargian». Laster batean, ordea, Olmertek adierazi zuen beldur zela palestinarrak «Aljeriako paradigmatic Hegoafrikakora aldatuko ote diren, haien hitzak erabiliz “okupazio”-aren aurka borrokatzetik *pertsona bat boto bat* lortzeko borrokatzera. Hori, bistan denez, borroka askoz garbiagoa litzateke, askoz babes zabalagokoa... eta azken beltzean askoz indartsuagoa». Israeldarrak bultzatzeko Palestinako Aginte Nazionalarekin hautsi-mautsi bat hainbat lasterren erdiestera, zera esan zien: «Egunen batean bi estatuko konponbideak porrot egiten badu

⁶⁵ Joel Kovel, *Overcoming Zionism: Creating a Single Democratic State in Israel/Palestine*, Londres-Toronto 2007, 216.

⁶⁶ Ikus Tamar Hermann, 'The Bi-National Idea in Israel/Palestine: Past and Present', *Nations and Nationalism*, 11. lib., 3. zk., 2005, 381-382.

eta Hegoafrikakoa bezalako boto-berdintasunaren aldeko borroka bati aurre egin behar badiogu, orduan, ez bat ez bi, kito izango da Israelgo estatua».⁶⁷

Batekoen oharkizuna bestekoena bezain taktikoa zen, bakoitza bere etxeko posizioa sendotu nahian ari baitzen. Guztiarekin ere, bi aldeetan garbi dute estatu bakarreko konponbideak sionismoaren eta haren Zisjordaniako asmakariaren akabua ekarriko lukeela.

Zorionez, halere —biak ados dira horretan—, erabat bideraezina da, zeren ez juduek ez palestinarrek ez dute halakorik inondik ere nahi: bakoitzaren estatu propioan sinesteko engaiamendu kartsua eta bakoitzaren fedea hesi gaindiezinak dira egitura politiko bakarrean elkartzeko. Errealismoaren osagaia bistakoa da argudio horretan. Hesia, ordea, ez da dirudien bezain simetrikoa. Bi aldeetako klase politikoarentzat, jakina, erabatekoa da: ez dute itun suizidarik egingo. Beste horrenbeste esan liteke juduen gehiengo nabarmenaz, Israel haien gotorleku baita. Ez da, haatik, hala palestinar jendearentzat, estatu bereziaren esperantza baztertzea aukeran hobe baillitzaiteke *status quo*aren etengabeko itomena baino. Abbasen agintaldian, Palestinako Aginte Nazionala beste edozein arabiar gobernu baino beherago agertu da prentsa-askatasunari buruzko sailkapenetan bi aldiz —Saiden lanak Arafatek debekatu zituen—, eta, zentsura eta larderia direla eta, zaila da iritzi publikoaren adierazpen fidagarriak aurkitzea. Argi dago, ordea, gizarte zibil hori oraindik ez dela erabat kooptatu edo desegin, ez direla unibertsitateak makurrarazi; eta aieruz sumatzen da PAEren helburu ofizialekiko desilusioa hazten ari dela.⁶⁸

67 *Haaretz*, 2007ko azaroak 29. Elkarrizketa berean, Olmertek zuzenean deskribatu zituen «judu-erakundeak» [...] «Estatu Batuetako gure boterearen oinarri» gisa.

68 Estatu bakarraren ideiak palestinarren artean zer babes izan lezakeen

Ez da, beraz, harritzekoa estatu bakarrek konponbidearen aurkako lehenbiziko liburua etortzea nondik eta haren beldur izateko itxuraz arrazoi gehien duen alderditik, hots, Zisjordaniako Al-Fataharen erregimenetik. Izan ere, Al-Fataharen Estatu Batuetako sukurtsalak, American Task Force on Palestine izenekoak, «harrotasunez aurkeztu» zuen Hussein Ibish-en liburu kritikoa 2006. urtearen hasieran.⁶⁹ Estatu bakarren aldeko argudioak banan-banan zerrendatu eta errefusatu ondoren —jakina, aipatu ere egin gabe horien eragile zen Palestinako Aginte Nazionalaren erregimen polizialarekiko atsekabea— Ibishek azaltzen zuen benetan zer beharko zen: «Oroz gain, palestinarrek segurtasun-zerbitzu sendo, profesional eta burujabe bat behar dute, Palestinako gizartean legea betearazteko eta ordena zaintzeko, segurtasunari dagokionez nazioartean eta Israelen eskakizunak betetzeko eta milizien, armada pribatuen eta *ad hoc* militanten ugalketa eragozteko».⁷⁰ Israeldarren aldetik, Asher Susserrek, Ibishen «lan baliagarri»ari erreferentzia eginda, BDZren nozioa gutxietsi nahi izan zuen eginahalean, adieraziz Hegoafrikan ere ez zela garrantzitsua izan eta gaur egungo mundu globalizatuan ezin

jakiteko, ikus Makdisi-k aipaturiko Bir-Zeit-en inkesta: *Palestine Inside Out*, 282, 347, eta hemen jasotako inkestak: Faris (ed.), *The Failure of the Two-State Solution*, 8, 239, 291. Kontuan izanik Lurralde Okupatueta kontrol ideologikoak —ikasliburuek Palestinarekin identifikatzen dituzte lurraldeok, iheslariak ia aipatu gabe—, seguruenik ez dago datu fidagarririk.

- 69 «Gaia ezin daiteke egokiagoa eta adierazgarriagoa izan, bereziki kontuan izanik nola Estatu Batuetako gobernuak, Barack Obama presidentearen gidaritzapean, engaiatu den berriro Israelen eta palestinarren arteko gatazka betiko azkentzeko akordio baten bila», zeren bilaketa hori «funtsezkoa da AEBren interes nazionalerako». Honen atarikoan: Ibish, *What's Wrong with the One-State Agenda? Why Ending the Occupation and Peace with Israel is Still the Palestinian National Goal*, Washington DC 2006, 5.

70 Ibish, *What's Wrong with the One-State Agenda?*, 134-135.

lezakeela eragin nabarmenik izan. Errealista izan ala ez, ordea, «Israelen eta egitasmo sionistaren aurkako gerra politikoaren tresna kuttuna bilakatua da estatu bakarraren ideia. Ez du bilatzen Israelen konformidadea, mendekotasun kolektiboa baizik, eta nazioarteko komunitatearen hertsatzearen bitartez gauzatzekoa da, Israelen erabateko berezko deslegitimazioari buru emateko». Bere horretan, «ezbairik gabe higitu egin du Israelen zein bi estatuko konponbidearen zilegitasuna», eta «tresna bat da Israel pixkana-pixkana bakartzeko, nolabait ere behinola Hegoafrikari esleitutako paria-estatusaren parera ekartzearaino».⁷¹ Israeldarrek hobe lukete ez ikusia ez egin haren ondorio galgarriei.

Nolanahi ere, arrisku hori baztertzeko biderik onena al da besterik gabe harako egia hura errepikatzea, «denok dakigu zer itxura duen konponbideak», Clinton-ek zehaztu eta Taba-ko konferentzian ia-ia onartu zen bezala? 2014rako, «israeldar eta palestinar akademiko eta aditu hauten talde bat, horietako asko bakoitzaren aldeko liderrekin lotura estuak zituztenak», bake-prozesuan eta «Osloko negoziazioen aurreko eta osteko kanal guztiz sekretu»etan zailduak, ohartuak ziren Bide Orriak zorigaitzez fruiturik emango ez balu zer-bait irudimentsuagoa behar litzatekeela.⁷² Bi estatuko konponbidea suspertzeko, bestelako molde bat hobets zitekeen: ez lurraldea zatikatzea, ezpada funtzioak bikoiztea, israeldar eta palestinar estatuak, biak, espazio berean aritzeko moduan, bakoitza bere buruaren jabe zela. *One Land, Two States* liburuak eskema zehatzago eta konplexuago bat deskribatzen du —suediarren laguntzaz osatu ziren xehetasun instituzionalak— es-

71 Susser, *Israel, Jordan and Palestine: The Two-State Imperative*, Waltham, 2012ko maiatza, 144, 224.

72 Mark Levine eta Matthias Mossberg (ed.), *One Land, Two States: Israel and Palestine as Parallel States*, Berkeley-Los Angeles 2014, xiii.

tatu bakarreko orain arteko edozein proposamenek baino, sionisten ezinikusia gainditzeko moduan. Israel bere horretan utzita beraren itzal litzatekeen Palestina baten ondoan, «estatu paraleloaren egitasmo»ak babestu egiten du deslegitimazio-arriskuetatik. Paraleloa izateak ez dakar, horratik, berdina izatea. Konponbide horren aurrean dauden beldur zuztar-luzeei aurre egiteko modurik onena, liburuko egileetako batek dioenez, «botere-asimetria argi bat atxikitzea» da. Segurtasun-kontuei dagokienez, esatera, «antolamendu posible guztietan israeldarren aldeak eskatuko luke nolako edo halako abantaila militarra beretzat gordeztea».⁷³

12

Bi estatuko konponbideak —Obamaren administrazioa oraindik horretan ari da— aldekotasun epel halako bat besterik ez du jaso Israelgo errebisionisten artean, *force majeure* diplomatikoaren karietara eginiko onespentaktiko gisa. Gazako ebakuazioaren ondorioetako bat izan da gogo ausartenei pentsarazi zaiela badela gatazka briu-brau konpontzeko aukera. 2014an, Caroline Glick *Jerusalem Post*eko kudeaketa-buruaren ondoko eta Israelgo Armadako irakasleak *The Israeli Solution: A One-State Plan for Peace in the Middle East* [Israeldar konponbidea: Estatu bakarreko bake-plana Ekialde Hurbilerako] argitaratu zuen, Judea eta Samaria besterik gabe anexionatzeko proposatuz, lurraldeok Israelen parte bilakatzeko, Ekialdeko Jerusalem bezala, sionismo garaikidearen muga naturalak biribiltzeko. Israelen juduen nagusitasun demografikoa galtzeko

73 Nimrod Hurvitz eta Dror Zeevi, 'Security Strategy for the Parallel States Project: An Israeli Perspective', in LeVine eta Mossberg (ed.), *One Land, Two States*, 72, 77.

beldurra funsgabea zen, Zisjordaniako erakundeek zabalduriko arabiar populazioari buruzko estatistika puztuetan oinarritua. Palestinako Aginte Nazionala bertan behera uzteak, zeinari arabiar estatuek laguntzerik ez baitaukate, zama ekonomiko bat kenduko lioke AEBri, aldaketari abegi ona egiteko arrazoi bat emanaz batera. Europaren erreakzioa litzateke zinezko eragozpen bakarra. Europar Batasunaren zigorrak, halakorik balitz ere, ez lirateke munduaren azkena izango: Israel dagoeneko bere merkataritza-bazkideak dibertsifikatzen ari zen, eta ekonomiaren etorkizuna Asia aldean bide zegoen; izan ere, hango potentziak Israelgo azpiegituretan inbertitzen ari ziren, eta israeldarrei armak erosten ari zitzaizkien, Ramallahen axolarik gabe.⁷⁴

Gogo zuhurragoen ustean, eszenatoki baiko-rrigia da, proiektio amateurretan oinarritua —horien arabera, Zisjordania anexionatu ondoren ere juduak Israelgo biztanleria osoaren bi heren lirateke—, eta ez dauka sostengurik herrialdeko demografiako autoritatearen, Sergio DellaPergola-ren, lanean.⁷⁵ Benny Morris historialari itzaltsuak ikuspegi zorrotzago bat du Israe-

74 Caroline Glick, *The Israeli Solution: A One-State Plan for Peace in the Middle East*, New York 2014, 122-135, 259-260, 228-234.

75 Ikus DellaPergola, 'Demography in Israel/Palestine: Trends, Prospects, Policy Implications', IUSSP XXIV. Biztanleria Orokorreko Konferentzia, Salvador de Bahia, 2001eko abuztua, 17. Hamar urte geroago, zera azalduko zuen: «Jendeak galdetzen badu noiz galduko duten juduek nagusitasuna, orduan dagoeneko galdua dute. Gazako zerrendako eta Zisjordaniako palestinar biztanleriak batzen baditugu, atzerriko langileak eta iheslariak barne (horien kopurua azkar hazi baita azken urteetan), eta Itzulera Legearekin batean *aliya* egin duten baina Barne Ministerioak judutzat jotzen ez dituen israeldarrak baztertzen baditugu, orduan juduak biztanleria osoaren % 50 baino gutxiago dira»: *Jerusalem Post*, 2010eko azaroak 26. Glickek ballaturiko iturrien bitxikerien berri izateko, ikus Ian Lustick, 'What Counts is the Counting: Statistical Manipulation as a Solution to Israel's "Demographic Problem"', *Middle East Journal*, 2013ko udaberria, 185-205.

lek parean dauzkan dilemei buruz. Aurrena izan zen harako mitologia ofizial hura eraisten, zeinaren arabera arabiar populazioaren % 80k alde egin baitzuen Palestinatik 1947-1948an, eta hamar urtez goiti ahots nagusietako bat izan zen Israelen eraikuntzari buruzko berrazterketa kritikoa, harik eta ildo sionista nagusira bildu zen arte mendearen hasieran, herrialdeko «belatz» gerrazale muturrenetako bat izateraino.⁷⁶ Bigarren aldi horretan, Morrisek sentimendu antiarabiarrik gordinenari eman dio ahotsa. Ikuspegi politikoa mudatu arren, bere adimen historikoa atxiki du, behinola hainbeste tabu aberkoi urratzen utzi zion hura. Bera iraindua zuen kausa baten zerbitzuan orain, ez du galdu gauzei bere izenetik deitzeko gaitasun paregabea.

Morrisen *One State, Two States* lanak ideia horien berrikuspen historiko bat eskaintzen du bi komunitateen barruan. Arabiar ahots pisuzko bakar batek ere ez du sekula onartu bi estatuko konponbidea Palestinarentzat. Herrialdean estatu laiko demokratiko bakarra ezartzeari buruz gaur egun dabilen solasa estalki hutsa da herrialde osoaz berriro jabetzeko, etorkizuneko nagusitasun demografikoaren poderioz. Juduen aldetik, aldiz, Yishuven talde ttiki batzuk soilik azaldu ziren Palestinako estatu binazionalaren alde, eta ahots bakan isolatu horiek independentziarekin batera isildu ziren. Ez zeukaten garrantzi politikorik, ordea. Sionismoaren ildo nagusiak estatu judu monoetniko bat desio izan zuen hastetik beretik, jatorrian Transjordaniatik Mediterraneoraino eta gora eginda Libanoko hegoalderaino hartuko zuena, baina gero Palestinako Britainiar Man-

76 2014ko udan, Hagi Babesgarri operazioaren desegokitasuna kritikatu, Morrisek Israeli dei egin zion Gazari «heriozko ukaldi» bat jotzera, Israelgo Armadak barrendegia berriro okupatu Hamas xehatzeko eta erresistentzia oro suntsitzeko. 'We Must Defeat Hamas—Next Time', *Haaretz*, 2014ko uztailak 30.

datuaren luze-zabalerara gibelatu zen. Lider sionistek bazekiten beren helburua lortzeko arabiarrek kanporatu beharra zeukatela, eta ez zeukaten eskrupulurik populazio-transferentzietarako... garbiketa etnikorako. Hala ere, espero izaterik ez zutenez britainiarrak konbentzitzea Palestina osoa haien esku uzteko, Peel Batzordearen zatiketarako proposamena onetsi zuten, Piemonte (estatu-ernamuin) bat eskuratzeko urrats taktiko gisa (Ben-Gurionen hitzak erabilia), handik juduen boterea lurralde osora hedatzeko.⁷⁷ 1947-1948ko gerrak abagunea eman zion sionismoari, herrialdetik arabiar populazio gehiena garbiturik. Garaipenaren orduan, ordea, Ben-Gurionek ausardia falta izan zuen: Zisjordania ere anexionatu eta garbitu beharrean, hantxe, tronpaturik, zornatzen utzi zuen Israelen barruko hutsune arrotz baten moduan. Behin hura garbitzeko abagunea huts egin ondoren —gerra handiago bat piztuko balitz bakarrik ager zitekeen berriro aukera—, judu gehienek ezinbestean onartu zuten azkenean nolako edo halako palestinar estatu bat eraikiko zela han.⁷⁸

Ameskeria hutsa zen pentsatzea historia hori deuseztatu egin zitekeela XXI. mendean estatu binazional bat sortuta. Erljio-gatazkak berak ere eragotziko luke halakorik. Estatu bakarraren konponbidea txakurametsa zen. Bi estatuko konponbidea baizik ez zegoen mahai gainean. Zenbateraino zen errealista, ordea? «Israel/Palestinako lurraren taxua eta txikitasuna direla eta —ekialdetik mendebaldera laurogei kilometro—, bi estatutan zatikatzea amesgaizto praktiko bat da, ia burugabea». Ez hori bakarrik. «Palestinako Mandatu historikoa proposatu bezala zatikatzeak, % 79 juduen-

77 Morris, *One State, Two States: Resolving the Israel/Palestine Conflict*, New Haven 2009, 73.

78 Morris, 'Survival of the Fittest', *Haaretz*, 2004ko urtarrilak 8.

tzat eta % 21 palestinar arabiarrentzat, derrigorrean sentiarazi behar zituen arabiarrek, arabiar guztiak, sakonki eta bidegabeki irainduak eta umiliatuak, eta noski pentsaraziko zien Gazako zerrendak eta Zisjordaniak bakarrik osaturiko herrialde bat, huts-hutsik, bideraezina zela politikoki zein ekonomikoki». Zergatik ez dute, bada, palestinarrek jokutzen sionistek bezalaxe, alegia, ematen zaien hori aldi baterako pausalekutzat hartu, nahi dutena lortu arte? Halako estatu batek, «faktore ekonomiko, demografiko eta politikoez akuilaturik, ezinbestean lur gehiago bilatu behar luke eta hedatzen saiatu»... Israelen kontura.⁷⁹ Bi estatuko konponbidearen logika, beraz, etorkizun ilunekoa zen: nahasmendu azkengaberako errezeta bat. Bakarrik hedapen hori Jordania aldera zuzendu ahalko balitz egon liteke esperantzaren bat bigarren estatuaren sorrerak egoera seguru bat ekar liezaion Israeli, baina esperantza ilauna litzateke, monarkia haxemiak, ezbairik gabe, kontra egingo bailioke armekin.

13

Bi estatuko konponbidearen israeldar kon-
tzezioen gainean eraikia da, noski, halako edozein

⁷⁹ Morris, *One State, Two States*, 177, 195-196. Morris ez dabil oker uste duenean palestinarrek gibel-asmoak dituztela, Ben-Gurionek bezala. Salim Tamari-k berak ere, bi estatuko doktrina ofizialaren zutabe izan arren, zera idatzi zuen: «Bake-itun batean kontsokratutako sasiko estatu batek aski tarte utziko luke borrokan segitzeko bere lurraldetasuna finkatzeko eta burujabetza oinarritzko bat eskuratzeko». Nasser Abufarha-k ez du legarrik ahoan. Zisjordanian eta Gazan estatu bat eratzearen aldeko ideia babesten duten palestinar askoren ustez, Abufarharen hitzetan, «Palestina osorik askatzeko bidean lehen urratsa» da, eta zera eransten du xuxen eta zorrotz: «Horrek ez du esan nahi palestinar liderrek halako asmorik dutenik; aitzitik, lider horien programa bakarra beren lidergoari eustea da». Ikus, hurrenez hurren, 'The Dubious Lure of Bi-Nationalism' (Tamari) eta 'Alternative Palestinian Agenda' (Abufarha), in Hadi (ed.), *Palestinian-Israeli Impasse: Exploring Alternative Solutions to the Palestine-Israel Conflict*, 70, 152.

dinamikaren kontrako errezeloa. Eskaintzan dagoena ez da estatu independente bat Israelek 1967 aurretik oraindik okupatuak ez zituen lurraldeetan, orduan zeuden bezala. Gazak erakusten du zergatik ez diren Zisjordaniako kokaguneak, hein adierazgarrian, hustuko, zer esanik ez Ekialdeko Jerusalem. Gazako 8.000 kolono Israelen birkokatzea BPGren % 2 kostatu zitzaion estatu juduari.⁸⁰ Zisjordanian gotortutako 350.000 juduak lekuz aldatzeak BPGren % 80 ahituko luke; Ekialdeko Jerusalem kontuan izanez gero, % 120. Bigarren estatua sortuz gero, bertan geratu behar luke, hura edonolakoa dela ere. Gazak aurreratzen digu nolakoa litzatekeen juduen kontrolaren oinarria etorkizuneko Zisjordania horretan, Israelgo Armadaren garniziorik eta kontrolgunerik gabe. Estatu bakarreko konponbiderako aukera oro baztertu ondoren, Asher Susser-ek itzulingururik gabe adierazten du zer ekarri duen beti berak aldeztu duen bi estatuko konponbideak: «Israeldarrek babestu nahi zuten palestinar estatua ez zen sekula izango nazioen familiako kide erabat burujabe eta independentea, ezpada entitate zikiratu, desmilitarizatu eta zaintzapeko bat, aire-eremua eta, seguruenik, mugak ere Israelen kontrolpean izango lituzkeena eta israeldar eta/edo atzerritar presentzia militarren bat leukakeena».⁸¹ Horixe da haren liburuaren azpitituluko ezinbestea. Bi estatuen aldekoen artean, Susser «usapal» bakezale bat da.

Tankera horretako Aginte Palestinar Nazional bat, enbaxaden parafernaliala lortu eta Palestinar statuaren etiketa erantsi arren, ez litzateke *bantustan*

80 Rivlin, *The Israeli Economy*, 245. Kolono bakoitzak, batez beste, 200.000 dolarretik gorako kalte-ordaina jaso zuen: Shir Hever, *The Political Economy of Israel's Occupation: Repression Beyond Exploitation*, Londres 2010, 71.

81 Susser, *Israel, Jordan and Palestine: The Two-State Imperative*, 220.

pare bat baino askoz gehiago, aspalditik ezagun denez; horratx zergatik zabaldu den nagusiki estatu bakarreko konponbidearen aldeko jarrera. Israel aski goiz interesatu zen Hegoafrikak asmatuiko estatu koskor horiekin —Bophuthatswana-ren egoitza diplomatiko bat zeukan munduko herrialde bakarra izan zen—, eta haien adibidea, pribatuan, lagungarri gertatu zaio jarrera ofizialari orduz gero. Pasarte batean, Abunimahk alderatzen ditu, alde batetik, «Mandelaren kemena eta printzipioak, zeinak nahiago izan baitzuen espetxean segitu eta ez *bantustanei* zilegitasunik eman» apartheidaren erregimenak askatzea eskaini ziolarik halakoak onetsi eta Transkei-ra aldatzearen truke, eta, beste alde batetik, Yasser Arafaten «erabaki desesperatu, txoro, burukoia Israelen baldintzak onartu zituelarik Mediterraneo ondoko Transkei bateko lastozko agintaria izateko».⁸² Hain zuzen, horrexetan datza palestinar protektoratu baterako Israelen diseinuen kontraesan lehergarria. Zenbat eta estuagoa izan zinezko edozein burujabetzaren kontrako segurantza-sistema, orduan eta sinesgarritasun apalagoa izango du ezarritako erregimenak eta aukera gehiago izango dira haren kontrako matxinadak sortzeko. Kolaboratzaile-elite bat hazteak arrisku bat dakar: umiliatuena haserrea piztuko dela elite horren kontra. Litekeena da segurtasun-neurri horiek kontrara bihurtzea. Zenbat eta kontu handiagoarekin eratu bigarren estatua, orduan eta handiagoa izango da haren kontra altxatzeko probokazioa.

Estatu bakarreko konponbideari ezin aplikatu lekioko diskurtso hori. Alabaina, baditu bere behaztopaharriak ere, orain arte aurkeztu diren proposamenetan gutxi landutakoak. Konponbidearen xedea da herrialde

82 Ali Abunimah, *One Country: A Bold Proposal to End the Israeli-Palestinian Impasse*, New York 2006, 145-146.

dearen 1948ko zatiketa gainditzea, eta ez hainbeste 1976ko okupazioak. Hala eta guztiz ere, halako testuek zatiketa horren ondorioak saihestu dituzte (ez zatiketa bera): konkistatzaileak ebatsitakoaren handitasuna, eta konkistak eragindako erbestealdiaren neurria.⁸³ 1947an, gaur egun Israel den horretako lurren % 8 zen juduena. Gaur egun, % 93 kontrolatzen dute —arabiarrek, % 3,5—. ⁸⁴ Bi kalkulu independenteren arabera, estatu sionistak palestinar biztanleriari konfiskatutako ondasunen eta horri lotutako galeren zenbatekoa ia 300 mila milioi dollarrera iristen da, 2008-2009ko balio-tan.⁸⁵ Lurralde Okupatuetako biztanleen kasik erdiak iheslari gisa daude erregistratuta —ia bi milioi lagun, Nazio Batuetako eroldako bost milioietatik—. Erbestera aberrigabeak 2,5 milioi dira. Kanpaleketan 1,5 milioi iheslari bizi dira. Zer gertatuko da ondasun horiekin eta jende horrekin estatu bakarreko sistema

83 Salbuespen bakan baterako, ikus Ian Lustick, 'Thinking about the Futures of Palestine with the Pasts of Others', in Hadi (ed.), *Palestinian-Israeli Impasse*, 214: «Herrialde osoan estatu bakarra eta lege-jurisdikzio bakarra ezartzeak Lerro Berdearen barruko arabiarren lurak eta lur publikoak juduen eskuetara nasaiki aldatu izana arrisku larrian jartzea berealdiko eragozpena da israeldarrek estatu bakarreko konponbidea inoiz aintzat har dezaten».

84 Oren Yiftachel, *Ethnocracy*, Philadelphia 2006, 58; Israelgo lurraren konkista ondoko judutzearen berri jakiteko, 137-140.

85 Ikus Rex Brynen eta Roula E-Rifai (ed.), *Compensation to Palestinian Refugees and the Search for Palestinian-Israeli Peace*, Londres 2013, 10, 132-169. Bi kalkuluak Nazio Batuekin lotutako ekonomialarien eskutik datoz: Thierry Senechal eta Leila Halal, 'The Value of 1948 Palestinian Refugee Material Damages', eta Atef Kubursi, 'Palestinian Refugee Losses in 1948'. Gaia lantzeko gogoia izan duen israeldar bakan horietako baten ustez, desjabetutako palestinarrentzako kalte-ordainaren «maximo posiblea» 15 mila miloi dolar inguruan legoke, nagusiki Mendebaldeko iturrietatik: Ruth Klimov, 'Reparations and Rehabilitation of Palestinian Refugees', in Eyal Benvenisti, Chaim Gans eta Sari Hanafi (ed.), *Israel and the Palestinian Refugees*, Heidelberg 2007, 342. Taban, Tel Aviveko negoziatzaileek iradoki zuten, zuhurtzia handiz, 3-5 mila miloi dolar atera zitezkeela sionisten sakeletatik bost milioi palestinar iheslarientzat. Esan bezala, Knessetek mila milioi dolar eraldi zituen Gazako 8.000 kolono judu ia guztiak birkokatzen.

politikoan? Antzinako Britainiar Mandatuko bi komunitateen arteko gatazkaren muin-muinean dagoen afera horretatik hanka-puntetan pasatuz, estatu bakarrari —egiaz, estatu paraleloari— buruz idatzitakoek adierazten dute isilbidez onartua dela kalte-ordainak eta itzulera, onenean ere, sinbolikoak izango direla. Horrenbestez, bi estatuko konponbideak bezala, ez du ikusi nahi litekeena dela palestinarren eta juduen arteko desberdinkeria mingarri hori, alde batek besteari eginiko lapurreta gupidagabea oinarritua bera, etengabeko haserrerako iturri gorria izatea —haserrea pistolarekin arrastoan eduki behar, bi estatuen arteko mugan zehar; estatu bakarreko kale eta hirietan ere barrandan lebilke haserre hori, aberastasunaren edo pribilegioaren aztarna bakoitza jatorrizko lapurretaren oroigarri bailitzateke—. Panorama hori ikusteko eta esplikatzeko gaitasunean datza Morrisen indargunea.

14

Gertagaitza eta ziurra ez dira gauza bera. Hegi Babesgarri operazioaz arduratu zen Israelgo Armadako Estatu Nagusiaren buru eta Defentsako ministro izandako Moshe Ya'alon jeneralari erantsi izan zaion aipu hori apokrifo da (adierazpen supiztaileagoren bat egin du), baina zenbat zabaldu den ikusteak erakusten du apustua hauxe dela alde guztietan, argi adierazia errebisionisten artetik, eta adierazi gabekoa israeldar elite laboristan: «Palestinarrei beren kontzientziaren zolaraino ulertarazi behar zaie herri garaitua direla». Deserriko eta okupazioko hirurogeita hamar urte denbora luzea da. Beste hogeit edo hogeita hamar ez al dira aski izango nekea eta etsipena behin betiko nagusitu daitezten? Ez dago batere garbi. Libanoko tximista-geurrak eta lehen Intifadaren porrotak makurrarazi egin

zuten PAE Oslon. Bigarren Intifadaren zapalketak Abbas eta Fayyad ekarri zituen. Berun Urtuak Lerro Berdea onarrarazi zion Hamasi. Ukaldi bakoitzak erresistentziaren eskariak murriztu ditu. Alta, aldi bakoitzean lekuz aldarazi du. Libanon PAE jokoz kanpo geratu bezain laster, Zisjordanian haren kontroletik kanpoko matxinada bat piztu zen. Palestinako Aginte Nazionalaren ezina bistaratutakoan, beste jaikialdi bat piztu zen Zisjordanian, are erradikalagoa bera. Abbas hankapean hartutakoan, Hamasek hauteskundeak irabazi zituen aise. Hamas Gazan denbora irabazten hasitakoan, Jihad Islamiarra indartu egin zen. Ekialdeko Jerusalem izan liteke hurrengo sutearen sorburua.⁸⁶ Desplazamenduen eragin metagarriak higitu al du, azkenean, erresistentziarako ahalmen garbia? Goizegi da halakorik esateko. Hala ere, ez dirudi errepresio-ernaberritze zikloa gelditu denik.

Horren beldurrez saiatzen da, noski, Mendebala Israelgo klase politiko osoari bi estatuko akordio onetsarazten, Clintonen proposamenaren haritik. Saialdi horiek sionismoaren adar laboristan aurkitu dute beti erantzuna —sortzetik beretik esaneagoa izan da eskari inperialekin, lehen britainiarrekin eta gero estatubatuarrekin, tradizio errebisionista independenteagoa baino—, eta, aurrera egiteko, laboristak agintera bueltatzea behar dute, Likudekiko koalizio baten mendeko kide gisa baino posizio hobean. Estatu Batuek eta Europar Batasunak hain argiro babestu dute bi estatuko konponbidea, ezen orain nekez amore eman bailezake-

86 Ikus Nathan Thrall, 'Rage in Jerusalem', *London Review of Books*, 2014ko abenduak 4. Artikulugileak dioenez, «mila palestinar baino gehiago, gehienak adingabeak, atxilotu dituzte Jerusalem uztailetik hona —2000tik 2008ra bitartean, bigarren Intifada barne hartzen duen epealdi batean, Ekialdeko Jerusalemen segurtasun-kontuengatik eginiko atxilotetak baino lau aldiz gehiago—».

te, eta, beraz, oso litekeena da hurrengo proposamena Clintonenaren bertsio meheturen bat izatea. Nolanahi ere, Ekialde Hurbila islamaren barruko gatazka sektarioen gudu-zelai den artean, Mendebalak ez dauka horretarako presarik. Estatu Batuek eragiteko modua daukate Tel Aviven, baina ez dute arrisku handirik hartzen atzerapenarekin.⁸⁷ Europar Batasunak asalduren bat gertatzeko arriskua du, baina ez dauka eragiteko modu handirik. Oraingoz, Lurralde Okupatuek bat egitea daukate berriro Mendebaldeko Sahararekin edo Ipar Ziprerekin Mendebalaren oroimenaren linboan.

15

Zer lekutan uzten du horrek guztiak palestinarren askapenerako borroka? Izan al da beste mugimendu nazionalik hain buruzagitza negargarria izan duenik? Britainiar inperialismoak palestinarren 1936-1937ko matxinada handia zafratu ondoren, zeinak gerrarteko beste edozein errebolta kolonialek baino tropa gehiago behar izan baitzituen, Yishuvek Mandatuko nagusitasuna jaso zuen ondorengotzan, eta arabiar armada gaizki zuzendu eta eskas hornituen nahas-mahas batek ez zuen modurik izan hari gaina hartzeko. Nakba hain arin eta hondagarri gertatu zen, ezen hamar urtez goiti ez zen inolako palestinar erakunde politikorik izan. Palestina Askatzeko Erakundea (PAE) bera, hamasei urte geroago sortua, jatorriz ez zen

87 «Palestinar estatu txiki, pobre eta estrategikoki ezdeus bat sortzeak ekar litzakeen onurak ñimiñoak dira, kontuan izanik etxean zer kostu leukakeen gertuko aliatu bat estu-estu hartzeak, eskualdean eta AEBko barne-politikan botere adierazgarria duena», dio Nathan Thrall-ek, hain zuzen, Estatu Batuek, Clintonetik Obamara, Israelekiko egindako politiken analisisirik zorrotzenezan: 'Israel and the us: the Delusions of Our Diplomacy', *New York Review of Books*, 2014ko urriak 9. Kritika zolia eta errerealismo neurritsua nahaste, Thrallek Israeldik eta Israelez idatzitako gogoetak bikainak izan dira aldiro.

hainbeste ekimen nazional bat izan, Egiptoko diplomaziaren sorkari bat baino, Arabiar Ligak hasieratik muntatua. Alta, bada, desilusioak eta Al-Fatahen eta Arafaten buruzagitzaren trakeskeriak galbidera eramazuten halaberrez. Mende laurden batez, armen indarrez Mandatuko lurralde osoa berreskuratzea izan zen PAEren helburu ofiziala, sionismoa azkentzearekin batera, nahiz eta erabat bistakoa zen —estatubatuarren babesak berak galarazten zuen— ez zegoela inondik ere hartarako aukerarik. Al-Fatah azkenean horretaz ohartu eta Palestinar Kontseilu Nazionalak bi estatuen printzipioa onartu zuelarik, ameskeriazko maximalismoa minimalismo iraingarri bilakatu zen. Arafatek Nobel saria jaso zuen amore emateagatik, bezpera arte beretzat osorik aldarrikaturiko lurralde baten bostena jasotzeko esperantzaz; eta hori dena gertatu zen nola eta promesa hutsal bezain lauso horren (% 3 jasoko zuen aurretiaz) eta presidente-titulu apaingarri baten truke. Orduz geroztik, Oslon eskainitako motzondo iharra ere txikiagotu egin da.⁸⁸

Bazeukan, lurralde osoa aldarrikatu eta gero hondar batekin konformatu beharrean, bi herrien ar-

88 2003 aldera, palestinar lagun batek idatzi zion Gershon Shafir-i: «Nazio Batuen Banaketa Planak esan zien palestinarrei: hasieran zuena zenaren % 47 izango da zuentzat. 1993ko Osloko Akordioak esan zien palestinarrei: hasieran zuena zenaren % 22 izango da zuentzat. 2000. urtean Ehud Barak-ek palestinarrei eginiko «eskaintza eskuzabal»-ak zioen: hasieran zuena izandako luraren % 22ren % 80 emango dizuegu. Azkenik, 2002an Sharon-en palestinarrentzako bake-planak zioen: hasieran zuena izandako luraren % 22ren % 80ren % 42 emango dizuegu, eta % 42 hori etxeratze-aginduaren mende egongo da etengabe». Shafir-en iruzkina: «Palestinar ikuspegitik, lurra bakearen truke formulazioaren alderdi bereziki mingarri bat zera da: abiapuntutzat luraren gaur egungo jabetza hartuta, eta ez talde bakoitzaren lurarekiko jatorrizko harremana, emaile eta hartzaile kategoriak itzulikatu egiten dira, eta, beraz, badirudi eskuzabala Israel dela»: 'Reflections on the Right of Return: Divisible or Indivisible?', in Ann Lesch eta Ian Lustick (ed.), *Exile and Return: Predicaments of Palestinians and Jews*, Philadelphia 2005, 302.

teko banaketa ekitatibo bat eskatzea betiere. 1947ko Banaketa Plana, galdeketa iruzurti baten emaitza, AEBk eroskeriaz eta xantaiaz pasarazia Nazio Batuetan, irrigarria izan zen hastetik beretik: juduek, biztanleriaren % 32 izan arren, lurraren % 55 jaso zuten sari, eta itsasertzaren % 80; arabiarrei, biztanleriaren % 68 izanagatik, lurraren % 45 egokitu zitzairen. Urtebetera, Israelek lurraren % 78 harrapatua zuen, eta 1967an Jerusalem erantsi zion horri.⁸⁹ Orduetik hona, bi komunitateen arteko proportzioak aldatuz joan dira, baina, juduen immigrazio ikaragarria eta palestinarren jaiotza-tasa handiak direla medio, azkenean, gaur egun, parekotasun estu batean daude: juduak palestinarren aurretik dira tarte gero eta txikiago batetatik, eta palestinarek laster aurrea hartuko diete. PAEk azaleraren eta demografiaren arteko proportzio ezaren oinarri erraldoian funtsatu balu bere borroka, eta nazioartean baliabide parekideen ekitatearen alde aritu balitz, defentsiban jarriko zuen estatu sionista. Nolatan justifikatu ahal izan zen halako arpilatzerik? Berandu da horretarako. Horren partez, israeldar guztiz ilustratuak ikusi behar izaten ditugu munduaren aurrean esaten haiek ez dutela egundo zalantzan jarri

89 Pentsalari judu batek historia honetaz inoiz eginiko gogoetarik finenetako batean, Andrei Marmor-ek seinatu zuen kontua ez dela bakarrik ez dagoela printzipioetan alderik 1948ko eta 1967ko lurralde-harrapaketen artean, baizik eta, «konkistako bi pasarte horiek moralki alderatuz gero, 1948ko arabiar lurren okupazioak kalifikazio okerragoa izango luke[ela]. Kokaguneak moralki okerrak eta politikoki burugabeak izanagatik, horiek gutxienik ez dira ezarri garbiketa etnikoko prozesu baten bidez. Nik dakidala, bederen, proportzioan palestinarrak egoiliar gutxi kanporatu ziren beren etxeetatik kokaguneak sortzeko; ez zen izugarrikeriarik gertatu palestinarren lurra (gehienak laborantza-lurra) konfiskatzean kokagune horiek altxatzeko, eta ez zen biztanleria-transferentziarik izan tartean. Tamalez, ezin da halakorik esan 1948ko konkistaz»: 'Entitlement to Land and the Right to Return: An Embarrassing Challenge for Liberal Zionism', in Lukas Meyer (ed.), *Justice in Time: Responding to Historical Injustice*, Baden-Baden 1994, 323.

Israelen eskubidea herrialdearen lau bostenez jabetzeko eta, moldaketak moldaketa, uste dutela Clintonen txakur-dirua nahiko tratu ona zela palestinarentzat... Ramallahtik kontrako zurrumurru bat besterik aditzen ez zela.

16

Panorama horretan, estatu bakarraren eskaria da eskura dagoen aukera onena palestinarentzat. Eledun sionistek eta orobat «presati»ek hain irmoki baztertzea aski frogagarri da. Ideia bat izango da, programa bat baino gehiago, erreparazioaren eta itzuleraren auziei heltzen ez dien arte, zeren eta auziok ez dira ebatziko lapurreta jasandakoei, itzulketa materiala eskaini partez, keinu sinbolikoekin ziria sartuz, ez eta iheslariak Osloko erreserbetara jaurtiz ere, beren familien sorlekura joaten utzi partez.⁹⁰ Nolanahi ere, oroz gain, noski, mugimendu antolatu bat behar du estatu bakarraren proposamenak, etorkizunaren berreraikuntzari demokraziaren aldeko borrokaren taxua emateko. Definizioz, Israelen mendeko palestinartanleriaren hiru multzoak bildu behar lituzke, zeinak gaur egun elkarrengandik berezita baitaude; zer esanik ez diaspora. Gaur egun ezin pentsatuzkoa da hori. Dena dela, zentzuzkoa da galdetzea: berez, zer lekarke horrek? Zisjordanian, Khalidik —beste batzuen onsenpena jasoz— eskatu dio Palestinako Aginte Nazionalari bere burua desegiteko, zeina Israelek azpikontratatu baitu Zisjordaniaren zati batzuk patruilatzeke.⁹¹ Hala,

90 la guztiak gaur egungo Israeldik datoz, eta ez Lurralde Okupatuetatik. Behinola beren etxe izandako horietara itzultzeko modua eduki behar luketela pentsatzea «anatema da eta izango da israeldarren gehiengo erabat nagusi eta guztiz egoskor batentzat»: Dan Rabinowitz, 'Beyond Recognition: Staggered Limited Return of Palestinians into Israel', in Lesch eta Lustick (ed.), *Exile and Return*, 415.

91 Rashid Khalidi, *Brokers of Deceit: How the us Has Undermined Peace in*

bada, hirugarren Intifada bat gertatuz gero, herriak Al-Fatahren erregimen errepresiboaren kontra altxatu behar luke, hain ustelduta ez dauden erregimeneko indarrak beraren kontra baliatuz. Gazan, zintzotasuna eta diziplina funtsezko balioak dira zapalduen edozein mugimendurentzat; baina Egiptoko bere erakunde gurasoaren patuak irakatsi al dio Hamasi zer kostu duen erlijioa demokraziaren aurretik paratzeak, eta ez bakarrik fededunentzat? Azkeneko eta ez hutsalago, Israelen bertan palestinar komunitateak ez du etekin ateratzen Knesseteko ordezkariak indargetik, eta arabiar alderdiek, ostrazismora kondenaturik, haiek aintzat hartzen ez dituen sistema bat legitimatu besterik ez dute egiten. Boikot politikorik eraginkorrenak hantxe hasi behar luke, Knesset utziz eta arabiar hauteskunde batzuetatik ateratako herri-biltzar bat sortuz, munduari —eta israeldarrei berei— aditzera emateko zein urrun egon den beti sorkari sionista inongo ekitate demokratikotatik, eta Lurralde Okupatuei eztabaida eta ordezkariak librearen erakusgarri positibo bat emateko.⁹²

Demokraziaren aldeko palestinar mugimendu bat nahitaezkoa bada noizbait etorkizunean estatu bakarra sor dadin, horretarako eragozpenak agerikoak dira, eta gaur egun gaindiezinak. Ez ditu bakarrik kontra Ramallahko jendarmeak eta torturatzaileak, Gazako

the Middle East, Boston 2013, 117-119.

92 Ohargarri da Ramallahko erregimenaren kritikorik goiztiar eta buruargienetako bat Israelgo palestinar komunitatekoa izatea: ikus Azmi Bishara, '4 May 1999 and Palestinian Statehood: to Declare or Not to Declare', *Journal of Palestine Studies*, 28. lib., 2. zk., 1999, 14-15. Artikulu horren harira, Uri Avnery israeldar bakezaleak protesta egin zuen sumindurik, adieraziz Arafat bere «babes bihotzezkoena» zuela eta «Ehud Barak-en historia estimagarria»-n uste osoa zuela, etorkizuneko bi estatuko konponbide errealista baten bidelagun gisa: 'A Binational State? God Forbid!', *Journal of Palestine Studies*, 28. lib., 4. zk., 1999, 55-56.

fanatikoak, Jerusalemgo goranahiak eta Mendebalaren eta Israelen aurkaritza. Izan ere, gaur atzo bezala, Palestinaren emantzipaziorako aukerak txikiak dira, non eta inguruko arabiar munduan ez den aldaketa iraultzailerik gertatzen hango unibertso itogarria azkentzeko... autokrazia feudalez eta tirania militarrez, erregimen klientelistaz eta estatu errentistaz betea, erlijio-gerrek esker-eskuin zafratua baina ez aldarazia. Badira horretarako bi arrazoi. Arabiar herrialde nagusietan egitura politiko demokratikoen eredurik edo halakoetarako trantsiziorik ezean, palestinarren esperientzia demokratikoa ahula izango da halabarharrez. AEBk, AEBk eta Israelek 2006ko palestinar hauteskunderen emaitzak baliogabetu zituztelarik, handik ateratako gobernuak ez zuen kontrapisuzko sostengurik izan arabiar herrialdeen aldetik. Nekez ager daiteke demokraziatzko palestinar uharte bat, edozelakoa, estatu bakarraren atarikoa edo bestelakoa, despotismozko itsaso baten erdian. Halaber, Israelek ez du bere indar-posizioa lagako Ekialde Hurbilean zinezko mehatxu bat aurrez aurre paratzen ez zaion artean, eta hori bakarrik gertatuko da eskualdeak uzten dionean Washingtonentzat fidagarria den ustelkeriazko eta mendekotasunezko eremu bat izateari. Orduantxe bakarrik, bere natura-baliabideen eta gune estrategikoen kontrola duen arabiar elkartasun bat aurrez aurre paratzen zaionean, izango ditu motiboak AEBk bere *alter ego*a arrastotan sartzera behartzeko.





